

Urtekaria



A G I R R E

H O R T Z K L I N I K A

Urte berri on!

Ibargarai 32, behea BERGARA | agirrehortzclinika@gmail.com | Tel.: 943 76 00 23 | Mug.: 665 72 36 28



Aurten, June Larzabal artista eskoriatzarrak egin du urte berria zorientzeko Goienaren mezurako irudia: *Beti izango gara gu.*

"Etorkizunean ere, Debagoieneko herriek berezko duten izaera mantentzeko aldarrikapena egin dut". Hala bedi.

2024 on guztioi!



Beti izango gara gu
Egilea: June Larzabal
Teknika: tornua eta modelatua
Neurriak: 100 x 70 x 10 cm

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

AURKIBIDEA

URTEKARIA DEBAGOIENA

20000000000

Urte hilabetez hilabete

Urtarrila	4
Otsaila	6
Martxoa	8
Apirila	10
Maiatza	12
Ekaina	14
Uztaila	16
Abuztua	18
Iraila	20
Urria	22
Azaroa	24
Abendua	26

Protagonistak 28

Aztergai

Gizartea 2022	30
Ekonomia 2022	32
Kirola 2022	34
Kultura 2022	36

Urteko pozak eta penak 38

EDITORIALA

Erronka berriei heltzeko unea

Hauteskunde urtea izan da amaitzera doana. Hastear dena bezala. Udal eta foru hauteskundeak izan ziren udaren atarian, eta, hauteskunde biharamunean, ustekabeen, deitu zituzten Espainiako Gorteetarako hauteskundeak. Udaltzak eta Batzar Nagusiak aukeratzekoetan, Debagoiengan eta Gipuzkoan, EH Bildu izan zen garaile. Hala, 2011n, koalizioa sortu berritan, Bilduk eskualdean eta lurraldean lortutako emaitzak lortu ditu 2023an EH Bilduk. Ondorioz, eta Leintz Gatzaga albo batera utzita –han ez da aurkezten–, Debagoieneko udal guztietan lortu ditu alkateak, eta duela bi agintaldi zegoen egoerara itzuli da. Debagoieneko alkateak kolore berekoak dira, zortzi urteko etenaren ostean. Gipuzkoako Diputazioan, ordea, ez du nahikoa babesik izan Gobernua eskuratzeko; EAJk eta PSE-EEk gehiago batu dute. Hauteskundeetako emaitzek aro berri baten hasiera irudikatu dute. Ikusteko dago datorren urteko udaberrian Jaurilaritzan ere islatzen den.

Erronka garrantzitsuei aurre egin beharko diete udal agintari berriek. Horien artean, klima larrialdia. Arazo globala da, tokitik eta tokikoan ere erantzun beharra duena. Nola erantzun? Hor dago koska. Eusko Jaurilaritzak gura du Eusko Legebiltzarrak otsailean onartzea energia trantsizioari eta klima aldaketari buruzko legea. Agintaldiko azkena izango litzateke. Gutxienez, EAEko hiru alderdi nagusien onespenez onartu nahiko luke. Testuinguru horretan, udalek ere klima eta energia planak sortu beharko dituzte. Eta kudeatu beharko dituzte, besteak beste, energia sortzeko beren udalerrietan aurreikusita dauden azpiegiturak. Esaterako, Eusko Jaurilaritzak Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialean aurreikusitako parke eolikoak; tartean, Debagoieneko bost udalerrietan ezarri nahi dituztenak: Antzuolan, Aramaion, Eskoriatzan, Leintz Gatzagan eta Oñatin. Eta kudeatu beharko dituzte udalerririk horietako batzuetan –Antzuolan eta Aramaion, esaterako– azpiegituron aurka sortu diren herritarren plataformen aldarrikapenak –Meaka-Irimo eta Aramaixo Bizirik–. Interes orokorrak eta partikularrak; arazoei irtenbidea emateko alternatibak... Horrek sor ditzakeen kontraesanekin.

Greba, zaintza sistema aldatzea eskatzeko

Euskara izan da 2023ko protagonistetako bat. Hainbat arrazoi tarteko. Gaziak eta gozoak. Aurten, 40 urte bete ditu AED Arrasateko euskara elkarteak. Eta 30 urte Aretxabaletako Loramendik. Bi elkarte horien artean Bergarako Jardun, Aramaioiko Txirritola eta Elgetako Goibekorenaren diren GOIENA aldizkariarendako eta *Goiena.eus*-endako ere borobila izan da urtea. Lehenak 1000. zenbakia argitaratu du uztailean; bigarrenak 20 urte bete ditu abenduan. Biak dira erreferente eskualdean. Bertako euskara elkarteak eta Euskal Herri osoko beste hamaiakak batzen dituen Euskaltzaleen Topaguneak, bestalde, lehendakari debagoiendarra du iraila ezkeror: Irati Iciar oñatiar-gasteiztarra. Erakundeak Arrasaten egin du urrian III. Kongresua. Erabileraren arorako jauzia eman eta ipar izango duen txosten berria onartu zuen

Topaguneak kongresu hartan. Baina euskara albiste izan da, ere berean, oldarraldi judiziala dela eta. Erakunde publikoen –baita tokikoen ere– euskara sustatzeko eta erabilera normalizatzeko politiken aurkako epaiak ugariak izan dira azkenaldian. Eta horri erantzuteko milaka lagun elkartu ziren azaroan Bilbon; haien artean asko, Debagoienekoak.

Azaroko greba feminista orokorra izan da beste mugarririk bat. Zaintza ere bada erronka. Eredua dago

auzitan. Betebeharrak, ardurak eta aitortzak. Gizartearen eginkizuna da zaintza sistema justuagoa eraikitzea. Ikuspuntu ezberdinak dituzte alderdi politikoek, baina horretan ere –hezuntzan beharko lukeen bezala–, gutxienez, hiru alderdi nagusiek, gizarte eragileekin batera, adostasun zabaletara heltzeko gehiago egin beharko lukete. Zorionez, gai hori ere lehen lerroan dago. Feminismoa bezala. Arrasateko Emakume Txokoak 20 urte bete ditu. Bestelako egoera baten ekin zion. Jendartea parekideagoa da gaur egun duela 20 urte baino. Horretan, Emakume Txokoak ere –mugimendu feministarekin batera– badauka zerikusirik.

Ospakizun urtea izan da Bergarako Orfeoiarendako –100– eta Arrasate Musikalendako ere –50–. Azken horrek etxe berrian, Juan Artzamendi Musika Etxe dotorean, bete ditu urteak. Zorionak! Eta 2024 berri on guztioi!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goliatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Erredakzioa

Larraitz Zeberio,
Idoia Aranbarri,
Hasier Larrea,
Jokin Bereziartua,
Xabier Urzelai,
Julen Murua, Miren Arana,
Miren Arregi, Aitzibere
Aranburuzabala,
Eneko Azurmendi,
Oihana Elortza, Mirari Alturbe,
Imanol Beloki, Amaia Ramirez,
Arantzazu Ezkibel

Argazkiak

Erredakzioa, Mikel Legaristi,
Sergio Mateo, Markel
Baztanbide, Alex Abril,
Deportivo Alavés, Mario Berges
Navarro, Bergarako Udala
Arxiboa, Toribio Jauregi
fondoak, Arantzazu Lab, Nahia
Irazola, Vladimir Morozov.

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza
Martin, Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Bereziabar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria, Leire Iria.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Honako urtekari honen edizioa abenduaren 22ko eguerdian itxi du Goienak.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

ELGETA

Elgeta Oinherria batu zen

Euskal Herriko herri hezitzaileen sarea sustatzen duen Oinherri elkartearekin hitzarmena sinatu zuen urtarrilaren 17an Elgetako Udalak, aurrez Oñatikoak eta Bergarakoak egin bezala.

OÑATI

Jesus Odriozola Musikaria

Errege eguneko kontzertuan Oñatiko Musika Bandako ohorezko bazkide izendatu zuten Jesus Odriozola *Otxua*. 70 urte betetzen dituzten bandako kideek jasotzen duten aitortza da.



ARAMAIO

Tantai Baso Jabe kooperatiba

Urtarrilaren 12an Aramaion egindako batzarrean eman zioten sorrera Tantai Baso Jabe kooperatibari. XXI. mendeko erronkei aurre egiteko basogintza modu berri baten aldeko apustu moduan jaio zen Tantai.

ELGETA - ANTZUOLA

Gazte Asanbladak, martxan

Bost urteko etenaren ostean, Elgetako Gazte Asanbladak urtarrilaren 27an egin zuen jendaurreko aurkezpena. Sasoi berean ireki zituen berriz ateak Antzuolako gaztetxeak, 25 bat laguneko asanbladarekin.



ARRASATE

Porrotxinen festan, Amaia antzokia beteta

Txatxilipurdi Elkarteak antolatuta, Porrotxin pailazoaren 15. urteurreneko ikuskizun berezia egin zuten urtarrilaren 3an Amaia antzokian. Porrotxek eta Porrotxinek berak gidatuta, hainbat eragilek hartu zuten parte eta askotariko balioak azaleratu zituzten. Hala, aldarrikapenez josi zuten Porrotxinen urtebetetzea.



DEBAGOIENA

The Clayton irabazle Danbaka lehiaketan

Urtarrilaren 13an jokatu zen, Bergarako Seminarixoa aretoan, V. Danbaka Musika Lehiaketaren finala. The Clayton, Aiert eta Arragoa izan ziren final handian. The Clayton taldeak jaso zuen sari nagusia, Aiartek Publikoaren Saria eta Letaginek Ekinez Goiena saria.



DEBAGOIENA

Pentsiodunen protestak hasi zirela bost urte

Urtarrilaren 15ean bost urte bete ziren pentsiodunek pentsio duinen aldeko mobilizazioak hasi zituztela. Debagoiengan ere urteurren ekitaldiak egin zituzten hainbat herritan. Oraindik ere, astelehenero elkartzen dira, besteak beste, 1.080 euroko gutxieneko pentsioak aldarrikatzeko.



DEBAGOIENA

Arrasateko ospitale zaharra eraisteko lanen hasiera

Pabiloi berri bat eraikitzeko abiarazi zituen Osakidetzak ospitale zaharra eraisteko lanak urtarrilean. Asmoa da digestio-unitate berri bat eta errehabilitazio-zerbitzu berri bat sortzea, eta baita ere erresonantzia magnetikoko gela bat integratzea. Aurreikuspena da eraikin berria 2029rako egotea prest.



EGUSKIGRAF inprimategia
Tel.: 943 79 18 44 / 656 714 770
info@eguskigraf.com
Industrialdea F-O-4
ARETXABAETA

2024a oparotasunez beteta izatea opa dizugu.
Zure konfiantza izaten segituko dugun esperantzarekin eta gure zerbitzuak eskaintzen segituko dugulakoan.

KOOP. E.

OÑATI - ARETXABALETA**Ziklo-kros txapeldunak**

Markel Uriarte aretxabaletarra, master 30 kategorian, eta Aimar Erostarbe oñatiarra, 23 urtez azpikoetan, Gipuzkoako ziklo-kros txapeldun izan ziren urtarrilaren 8an, Ormaiztegin.

OÑATI**Ibon Martin idazleari harrera beroa**

Santa Ana aretoa bete egin zen *El ladrón de rostros* eleberraren aurkezpen ekitaldirako, urtarrilaren 13an. Oñatin kokatu du istorioa idazle donostiarrak; herrian gertatutako hilketak bat du oinarri eleberriak.

ARRASATE**Olatz Igartua** Besaide ME

Urtarrilaren 18ko batzar orokorrean aukeratu zuten Besaide Mendi Elkarteko presidente Olatz Igartua. Lehenengoz du emakumezko bat presidente Arrasateko mendi elkarteak.

**ARETXABALETA****Huhezinema jaialdia, urtarrilean**


Udaberrian beharrean urtarrilean egin zuten Huhezinema jaialdia. Hilaren 27an egindako galan Maider Oleagaren *Irrits* izan zen saritu nagusia. Urtez urte aurkezten diren lanen kalitatea gora doala zioten antolatzaileek.

**ARRASATE****'Hirekin' zentroaren lehen harria**

Mondragon Unibertsitateak berrikuntza eta ekintzaitza industrialeko *Hirekin* zentroaren lehen harria jarri zuen urtarrilaren 16an. Unibertsitateko, Udaleko, Gizabidea Fundazioko, Mondragon Korporazioko, Berrikuntza Ministerioko, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ordezkariak zabala izan zen ekitaldian.

**BERGARA****'Bretxa' musikalaren estreinaldia Donostian**

Txalo artean eta *San Sebastian* martxaren doinuekin agurtu zizuten Victoria Eugenia antzokian batutako ikus-entzuleek *Bretxa* musikaleko aktoreak eta musikariak. Kritika onak jaso zituen Bergarako Antzerki Musikaleko lagunek sortutako ikuskizun erraldoiak. Urtarrilaren 13an estreinatu zuten, Donostian.

**ANTZUOLA****Jauregiko tunela konpontzeko lanak, martxan**

2019ko abenduaren 13an gertatu zen lur-jausia trenbide zaharretako gune hartan. Luze jo zuten itxaronaldiak, baina, hiru urteren ostean, Egurki enpresari esleitu zizkion lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak; hain zuzen ere, 200.550,75 euroko aurrekontuarekin. Urtarrilaren 24an ekin zieten lanei.

DEBAGOIENA**Urteko lehen elurteak bazterrak zuritu zituen**

Iragarrita zegoen, eta urtarrilaren 18a zuri esnatu zen Debagoiena. Ohikoa denez, goietan bota zuen gehien -10 bat zentimetro Elgetan-, baina herri guztietara heldu zen maindire zuria. Errepideetan ez zen aparteko arazorik sortu. Askok izan ziren elurretan ibiltzera mendi goietara jo zutenak.

**ARAMAIO****Txotx irekiera Iturrieta sagardotegian**

Urtarrilaren 12an egin zuten txotx irekiera Aramaioko Iturrieta sagardotegian. Txalaparta, bertsoak eta trikiti doinuak izan ziren nagusi. Aurrekoa baino uzta txikiagoa izan da azkena; baina, arduradunen esanetan, kalitate onekoa eta ohi baino graduazio handiagoko sagardoa izan da.

**Alberto Gorosabel Mendizabal eta Andrea Gorosabel Badiola doktoreak**

RPS: 258/18

943 76 56 88 • 618 95 90 17
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

clinicagorosabel

www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia: tradizionala eta ikusezina. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZIAREKIN.
- ESKANER DIGITALA diagnostiko zehatzak egiteko.
- AHO eta INPLANTEEN KIRURGIA punta-puntako teknologiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- Ezpainen estetika eta aurpegiko zimurrak betetzeko tratamenduak (azido hialuronikoa).

*Urte berri on!***1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENOI!**

OÑATI

Emakumeen Kontseilua eratu zuten

Oñatiko Udalak otsailaren 16an egindako batzarrean eratu zen formalki Emakumeen Kontseilua, eta Udalaren organo izatera pasatu zen. Hamalau kidek osatzen dute, eta hilean behin elkartzen da.

BERGARA

Inazio Er nabide Goiaga hil zen

Inazio Er nabide Goiaga osintxuerra, Loiola batailoiko azken gudaria, hil zen, 106 urterekin Donostian. 36ko gerran Euzko Gudarosteko lehen batailoian borrokatu zuen. 2017an omendu zuen Bergarako Udalak.

OÑATI

Jesus Mari Ugarte Idazlea



Jesus Mari Ugartek otsailaren 3an aurkeztu zuen *Goribar Kasablanka XX. mendeko bizitza argazkitan* liburua. Auzotarrek emandako oraingo eta garai bateko argazkiekin osatuta dago.

ARRASATE

Hamar langabe basolan formakuntzan


Enplegu formakuntzako plan pilotua abiatu zuen otsailean Arrasateko Udalak. Hamar langabek baso-mantentzearen arloko prestakuntza jaso zuten, jarraian hamar hilabetez %65eko lan-jarduna betetzeko.



ARRASATE

AHTaren lanek eragindako kalteak Lezetxikin

Otsail hasieran AHTaren lanen ondorioz Lezetxiki haitzuloan eragindako kalteak salatu zituen Besaideko Lagunak espeleologo taldeak. Gaiak hautsak harrotu zituen eta otsailaren 5ean elkarretaratzea egin zuten hainbat lagunek Arrasateko udaletxe aurrean, *Lezetxiki eta inguruak babestu! AHT gelditu!* lelopean.



ESKORIATZA

Sute handia Bidebarrietako basoan

Otsailaren 21ean susto ederra hartu zuten Eskoriatzako Arbiñoste auzoko bizilagunek. Etxafuego baten ondorioz su hartu zuen atzeko aldean duten Bidebarrietako basoak. Suhiltzaileek bost ordu behar izan zituzten sugarrak itzaltzeko. Hektarea erditik gora baso erre zen.

DEBAGOIENA

Axpe Espainiako txapeldun eta Ruiz de Azua txapeldunorde

Otsaileko hirugarren asteburuan jokatu zen, Madrilen, pista estaliko Espainiako Txapelketa absolutua. Maialen Axpe pertika-jauzilari arrasatearrak urrezko domina eskuratu zuen, 4,40 metroko jauzia eginda. Zilarrezko domina, berriz, Malen Ruiz de Azua herrikideak, 4,25eko jauzia eginda.



DEBAGOIENA

Goienener-en Debagoieneko bulegoa, zabalik

Goienener energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak otsailaren 22an zabaldu zuen bailarako herritarrei arreta eskaintzeko bulegoa. Arrasateko Zerkaosteta kaleko 15. zenbakian dago, eta kooperatibak zabaldu duen zazpigarren bulegoa da. Goizeko eta arratsaldeko ordutegia du lanegunetan.





Hemen
garbiketak
Ura bezain garbia

URTE BERRI ON!

Eskoriatza
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com



OÑATI

Uxue Osés Pilotaria

Uxue Osesek –Olatz Arrizabalagarekin batera– V. Bizkaia Torneoa irabazi zuen. Hilaren 10ean jokatu zen finala, eta Osés-Arrizabalaga bikoteak pronostikoak hautsi zituen.



ARRASATE

Andaluziako Eguna ospatu zuten

Al-Andalus elkartearen otsailaren 25ean ospatu zuten Andaluziako Eguna. Alegria de la Sierra taldearen emanaldia, Lourdes Oncalaren sevillana eskolakoen saioa, bazkari-afariak... Luze jo zuen egunak.

ARETXABALETA

Merkataritza Lagunkoia ekimena

Basotxo elkarteak bultzatuta, Aretxarte merkatari elkarteak bat egin zuen Establezimendu Lagunkoia sarearekin, eta adinekoei eskaintako arretan hurbiltasuna erakusteko konpromisoa hartu zuen.

ELGETA - ARETXABALETA

Oihana Kortazar eta Ainara Urrutia Korrikalariak

Oihana Kortazar nagusitu zen *trail running*-eko Espainiako Txapelketan, otsailaren 26an, Cadizen –apirilean, lineakoan–; hirugarren izan zen Ainara Urrutia.



LEINTZ GATZAGA

Agur hunkigarri eta jendetsua Eugenio Otsoari

Otsailaren 21ean hil zen Leintz Gatzagako alkate Eugenio Otsoa Ugalde. 71 urterekin eta gaixotasun luze baten ondorioz zendu zen. Hautesle Elkartearen izenpean Leintz Gatzagako alkate izan zen sei agintalditan, eta baita zinegotzi ere. Pertsona oso estimatua zen eta agur ekitaldi hunkigarri bezain jendetsua eskaini zioten.



ELGETA

Mendi Mendia Racing jaiak bosgarren aldia

Otsailaren 4an egin zuten, Elgetan, V. Mendi Mendia Racing jaiak. Ibilgailuen erakusketak, bazkariak –200 lagun inguru– eta iluntzeko kontzertuek osatu zuten egitaraua. Estreinakoz, gainera, Egoarbitzako Igoera egin zuten. Iosu Herran bergararra (34.39 minutu) eta Ione Elkoro elgetarra (44.17 minutu) nagusitu ziren.

DEBAGOIENA

Elkartasuna Turkian eta Sirian lurrikarek kaltetutakoei

Hainbat ekimen egin ziren Sirian eta Turkian izandako lurrikarek kaltetutako herritarrei laguntzeko. Bergaran, Ndank Ndank elkarteak deituta, neguko materialen eta arropen bilketa egin zuten. Arrasaten, Aretxabaletan eta Oñatin elikagai bilketak egin zituzten, Zaporeak-ek eta Hotz Oñatik antolatuta.



BERGARA

Tornulari onena Lanbide Heziketako ikasleen artean

Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentroko ikasle Denisse Guillenek irabazi zuen otsaileko azken aste bukaeran Santandren (Kantabria) jokaturako Espainiako Lanbide Heziketako ikasleen arteko tornularien lehiaketa. Goi Mailako Mekani-zatuen bigarren ikasturteko ikaslea zen orduan Guillen.

**KORONABIRUSA**

DEBAGOIENA

Agur maskararen erabilerari garraio publikoan

Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, otsailaren 8an baliogabetu zen maskararen erabilera garraio publikoan. Espainiako Gobernuak hala erabakita eta Ministro Kontseilutik pasa ondoren sartu zen indarrean neurri berria. Erabiltzaile eta gidari gehienek pozik hartu zuten albistea.



eskoriatza.eus
eskoriatzakoagenda.eus

BERGARA

'Bretxa'-k arrakasta herrian ere

Urtarrilean Donostian estreinatu eta gero, Bergara Antzerki Musikala elkarteak martxoaren 4an eskaini zuen *Bretxa* musikala Bergaran. Bi emanaldi egin zituzten, eta sarrera ia guztiak agortu ziren.

ELGETA

Ixotzen kooperatiba aurkeztu zuten

Ixotzen energia kooperatiba aurkeztu zuten Espaloian eta herritarrei eskaintako zerbitzuen inguruko informazioa eman zuten. Lehen proiektua: frontoiko teilatuan 45 kilowatteko instalazio fotovoltaikoa egitea.

ARRASATE

Leintz Ekiolak lehen batzar orokorra

Kooperatibak martxoaren 23an egin zuten lehen batzar orokorra, Amaia antzokian. Kontseilu Errektorea osatuko duten kideak izendatu zituzten: Iñaki Aranburu, Jon Loiti, Jose Mari Balzategi eta Maite Iturbe.

OÑATI

Debagoieneko Ernaik 10. urteurrena


Ernai Gazte Antolakundeak hamar urte bete ditu, eta, urteurrena prestatzeko herriz herri egindako saioen ostean, Oñatin egin zuten eskualde mailako ekitaldia, *Debagoienetik Ari Gara!* lelopean, martxoaren 18an.



OÑATI

Enpresa Nazioartekotze Saria Lana-ri

Oñatiko kooperatibak nazioarteko negozioaren garapenean egindako "ahalegin eredugarriagatik" jaso zuen saria Gipuzkoako Bazkondeak martxoaren 24an Donostian egindako ekitaldian. Kepa Bastida gerentea eta Mirari Zilaurren presidentea –ezkerretik hiruargarrena eta bosgarrena– daude argazkian.



ARRASATE

Energia eolikoaren sektorea eraldatzeko laborategia MUn

Eolikoaren sektorea eraldatzeko eta hobetzeko saiakuntza-laborategia inauguratu zuten Goi Eskola Politeknikoan martxoaren 27an. Ekitaldian izan zen, adibidez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburu Arantxa Tapia. Bisita, zinta mozketa eta talde argazkia egin zituzten.



ARRASATE

Ongietorri beroa musika etxe berriari

Martxoaren 31n inauguratu zuten Juan Arzamendi Musika Etxea. Erakunde publikoetako ordezkariak, Juan Arzamendi zenaren senideak, eraikinaren erabiltzaile izango diren kultura eragileetako kideak eta herritar ugari batu ziren ekitaldirako. Lepo bete zen aretoa eta pantaila bidez jarraitu zuten hainbatek kanpotik.

ARRASATE

Erailketaren 15. urteurrenean, omenaldia Carrascori

Martxoaren 7an bete ziren 15 urte ETAK Isaias Carrasco erail zuela. Senideek, alkateak eta alderdi sozialistako kideek lore-escaintza egin zioten osoko bilkura hasi baino minutu batzuk lehenago. EH Bilduko eta Podemos Arrasateko zinegotziek salatu zuten ez zekitela ezer omenaldiaz.



ANTZUOLA

'Mugak zubi' mendi ibilbidea Antzuola eta Aiherra artean

Duela 39 urte sortutako senidetza are gehiago sendotzeko aurkeztu zuten 204 kilometroko mendi zeharkaldia Antzuolako eta Aiherrako udalek martxoaren 21ean Urruñan. Hiru eta sei ordu inguruko hamabi etaparekin osatutako ibilbidearen gaineko informazioa eskuragarri dago mugakzubi.eus atarian.



Aixa
frutategia

Buztinzuri 6. behea Antzuola
Tel.: 943 78 62 69

Urte berri on!



BERGARA**'Maddiren trajeria' pastorala**

Xareta eskualdeko biztanleek udal pilotalekuan eskaini zuten *Maddiren trajeria* pastorala martxoaren 25ean. Hiru ordu eta erdi iraun zuen, eta txalo zaparrada jaso zuten publikoarengandik.

ANTZUOLA**Parrokiaren bosgarren mendeurrena**

Ekitaldien artean izan ziren bisita gidatuak eta Fernando Prado Donostiako apezpiku berriak esandako meza. 110 bat lagunek egin zioten ongietorria gotzainari Errukizko Amaren parrokiaren martxoaren 13an.

ARRASATE**Alberto Loiti Egilea**

Loitiren *Arrasate 1890-1940 Mondragon* argazki-liburua martxoaren 15ean aurkeztu zuten. Ikusmina sortu zen; Kultureteko areto nagusia bete egin zen ekitaldirako.

**OÑATI****Kultur ondare etnografikoaren liburua**

Erreusak egitasmoaren barruan herriko kultur ondare etnografikoa jasotzen ibilitako Gure Bazterrak taldeak martxoaren 3an aurkeztu zuen *Atzo, etzi. Oñatiko Kultur Ondare Etnografikoa* liburua.

**DEBAGOIENA****Gipuzkoako Merkatariak Federazioak, aitortza**

Urteetan egindako lanagatik aitortza jaso zuten martxoaren 13an Bergarako Etxeberría erloju dendak, Leturia harategiak, Bolintxo okindegiak, Mujika burdindegia, eta Galarreta zein Lombide oinetako dendek; Arrasateko Landaluze harategiak eta Resusta Karrikirik; eta Oñatiko Mendizabal kirol dendak.

**BERGARA****Gure Ametsa elkarteak, 50 urte**

Egun handia ospatu zuten elkarteak martxoaren 25ean. Hamaketakoa, meza San Antonioko ermitatxoan eta Bergarako Musika Eskolaren orkestra gaztearen kontzertua eta bazkaria izan zituzten, besteak beste. Miguel Angel Ibarzabal eta Andres Fernandez bazkide fundatzaileak ere omendu zituzten –lehen lerroan biak–.

**BERGARA****Hunkituta jaso zuen Monzon-Ganuza saria Xabier Amurizak**

Xabier Amurizak jaso zuen hirugarren Monzon-Ganuza Saria martxoaren 16an Seminarixoa egindako ekitaldian. "Hunkituta eta pozik" azaldu zen zornotzarra Olaso Dorrea Fundazioak eta Bergarako Udalak emandako saria jasotzerakoan. Bertso-gintzan eginiko urratsak nabarmendu zituzten, besteak beste.

BERGARA**Pello Garitanoren omenezko martxa zikloturista Gorlara**

240 lagun batu ziren martxoaren 25ean Pello Garitanoren omenez egindako Gorlako igoera berezian. Mota askotariko bizikletak erabiliz eta mozorroak soinean, umoretsu eta lagun giroan egin zuten igoera. Garitanok Lokatzari, txirrindularitzari eta Bergarari emandako guztia eskertzeko ekimena izan zen.

**DEBAGOIENA****Aldarri feminista ozen entzun zen Debagoiengan**

Era bateko zein besteko mobilizazioekin eta askotariko leloekin, martxoaren 8an ozen entzun ziren Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltako aldarrikapenak Debagoieneko herri guztietan. Ekintza jendetsuak izan ziren, gainera. Argazkian, Oñatin egindako manifestazioa plazarara heltzen.





Urte berri on!




Herriyan
Erosi
hemien bait!

OÑATI

Bailarako Dantzari Eguna

Antzuolako Oinarin, Aretxabaletako Leizarra, Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostaiz eta Oñatiko Oñatz dantza taldeko dantzariak batu ziren batu ziren apirilaren 1ean Oñatin bailarako Dantzari Eguna ospatzeko.

ELGETA

Baso Biziak Plataforma

Plataformako kideek agerraldia egin zuten apirilaren 22an Espaloian. Bi urteko ibilbidearen ostean, mozioak onartu, udalen balorazioa egin eta etorkizuneko proposamenak mahaigaineratu zituzten.

OÑATI

Puntaik Puntaren zazpigarren aldia

Apirilaren 21etik 23ra egin zuten ibarreko natur ondareari balioa emateko sortu zen jaialdia, Oñatin. Ibilaldiak, bisita gidatuak, tailerrak eta kontzertuak izan ziren protagonista, besteak beste, beste behin.

ANTZUOLA

Ibai Larrea Korrikalaria

Antzuolarra txapelkun izan zen 23 urtez azpiko Espainiako Trail Running Txapelketan, Lloret de Marren (Herrialde Katalanak), eta hirugarren sailkatu zen gizonzkoen absolutuetan.



ARRASATE

Bizi guztiko kartzela zigorra salatzeko, manifa

Unai Paroti "lege arrunta" aplikatzea eskatu zuen Sarek apirilaren 2an egindako manifestazioan. Seber Altuben plazan hasi zen, eta, herriko kaleak zeharkatu ostean, hasierako puntura heldu eta manifestua irakurri amaitu zuten ekitaldia. Egun hartan bertan 33 urte bete zituen kartzelan Parotek.



ELGETA

1936ko gerran hildako herritarrei omenaldia

1936ko gerran hildako Elgetako, Angiozarko eta Uberako 39 lagun eta frankistek espetxera zein lan-batailoietara bidalitako 72 omendu zituzten apirilaren 23an Espaloian. Joseba Tapiak *Ekaitza* kantuarrekin eman zion hasiera ekitaldiari; gero, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko nahiz orduko udaleko ordezkariak hartu zuten hitza.



OÑATI

'Irunberri, 1990: arroilaren negarra' liburuaren aurkezpena

Pako Aristiren *Irunberri, 1990: Arroilaren negarra* liburua aurkeztu zuten apirilaren 26an Santa Anan. Irunberriko 1990eko gertaeren ikerketa batu dute Gure Bazterrak taldeak eta idazleak liburuan. Ekitaldian izan zen Enkarna Maiztegi, arroilan hilik aurkitu zuten Susana Arregi oñatiarraren ama.



BERGARA

'Azuak ala hil'-en laugarren aldia Elorregin

Elorregiko festen barruan ospatu zuten *Azuak ala hil* apirilaren 29an. Bisita gidatua, bazkaria eta jolasak egin zituzten, besteak beste, 100 lagun inguruk, eta gauean Arima Galduak, Lukiek eta Lizartxo taldeek girotu zuten Elorregiko geltokia. Hurrengo 2025ean egingo da, baina auzoa erabaki barik dago oraindik.



ANTZUOLA

Ane Alberdiren eta Onintza Legorbururen liburu aurkezpena

Alberdi eta Legorburu ikertzaile antzuolarrek historiak eta antropologiak lagunduta idatzitako *Memoria josten: gatazka armatua Antzuolan 1958-2011* liburua aurkeztu zuten apirilaren 19an Olaranen. Euskal Herrian hamarkada luzez bizitako gatazka armatuari buruzko informazioa jasotzen du.





Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela




Urte
berri on!

KALEBARREN 5
943 76 62 90
ANTZUOLA

ARAMAIO**Eolikoen kontrako mendi martxa**

Ganborraldera, Statkraft enpresaren proiektua kokatuko litzatekeen lurretara, egin zuten ibilaldia apirilaren 1ean, Arabako Mendiak Aske plataformak abiatutako mendi martxen edizioaren baitan.

OÑATI**Bailarari bira, Hartzaren Urratsarekin**

Apirilaren 21etik 23ra egin zen Puntaik Punta jaialdian aurkeztu zuten Debagoienari itzulua ematen dion Hartzaren Urratsa ibilbidea. Gipuzkoako Mendizale Elkartek osatu du ibilbidea eta GR-289 deitzen da.

OÑATI**OKKE, Oñatiko Kale Katuen Elkartea**

Apirilean sortu zen Oñatiko Kale Katuen Elkartea, kalean ahalik eta katu gutxien egoteko eta daudenak ahalik eta baldintza onenetan egoteko helburuarekin, eta Udalarari laguntzeko gertu agertu zen.

ELGETA**Joseba Arregi kartzelara**

Martuteneko espetxera itzuli behar izan zuen apirilaren 18an Joseba Arregi oñatiarrak. Auzitegi Nazionalak atzera bota zuen Arregi hirugarren graduan sailkatzeko Justizia Sailak hartutako erabakia.

**ARETXABALETA****Ekain Andresi agurra Ojala Zelain**

Apirilaren 22an Ojala Zelain agurtu zuten apirilaren 7an Vietnamentan motor istripuan hil zen Ekain Andres, 25 urteko gazte aretxabaletarra. Lehenik eta behin, haren senideek hartu zuten hitza, eta, ondoren, anekdota, bertso, abesti eta dantza artean omendu zuten gaztea familiak, lagunak eta gertukoak.

**OÑATI****Ehunka lagun Arantzazurako erromesaldian**

Munduaren zauriak, Kristoren zauri lelopean egin zuten Arantzazurako erromesaldia apirilaren 1ean. Fernando Prado Gipuzkoako gotzainak lehen aldiz hartu zuen parte erromesaldian gotzain gisa. Ebanjelioko pasarte eta gogoetak bidean entzun bai, baina Arantzazuko Santutegian otoitza egin zuten mezaren ordez.



**GOIZPERREK
GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE GUZTIOI**

**URTE BERRI ON!
2024**

G Goizper Group
Ekarlanean garatzen

Ihaztadura · Industria · Bioteknologia



ANTZUOLA

Jauregiko tuneleko lanak, amaituta

2019ko abenduaren 13an gertatu zen lur-jausia bide berdeko tunelean, aurtengo urtarrilean hasi zituen lanak Egurki enpresak, eta maiatz erdialdean bukatu. Aldundiak 200.550,75 euro jarri zituen.

ARAMAIO

Arabako Eskolarteko bertso sariketa

Aramaioko kultura etxean jokatu zuten, maiatzaren 20an, Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala, eta Maddi Agirre gasteztarrak eroan zuen txapela, hirugarrenez.

ARETXABALETA

Kepa Errasti Aktorea

Bakardadeari buruzko *Posdatarik gabeko gutunak* izeneko "bakarrizketa-lagundua" estreinatutako aktoreak Tolosako Leidor antzokian, maiatzaren 26an.



BERGARA

Orfeoiaren mendeurrena

Maiatzaren 20an eman zioten hasiera Bergarako Orfeoiaren mendeurrenereko ospakizunei, Mozarten *Requiem* interpretatuta. 200 musikari baino gehiago, San Pedro elizako agertokian.



OÑATI

Maidar Arregi garaile Señora Sariketan

Maiatzaren 27an Oñatiko gaztelekuan jokatu zuten III. Señora Sariketako finala, eta sei finalisten artean Maidar Arregi bertsolari oñatiarrak jantzi zuen pamela beltza, iazko txapeldun Ane Labakak jarrita. Arregik esan zuen urduri egon zela, baina, azkenean, "oso gustura" abestu zuen.

DEBAGOIENA

Pentsio duinen aldeko oinezko martxa

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzeko zeharkaldia egin zuen Eusko Jaurlaritzara maiatzaren 22tik 25era. Hiru zutabetan banatuta, Gipuzkoako Bergaratik irten zen, Leintz Gatzagarako bidea hartuta. Dozenaka pentsiodunek hartu zuten parte martxan.

BERGARA

Masterreka kalea, zirkulaziorako itxuraldatuta

Urtarrilaren 9a ezkerreko itxita eta obretan egon ostean, maiatzaren 5ean ireki zuten Zubieta eta Bolu arteko Masterreka kalea. Irigarritasuna hobetzeko lanak sei hilabetez egitea aurreikusita zegoen arren, aste batzuk lehenago bukatu zituzten. Tarte hartan, Multzo Monumentaletik bideratu zuten trafikoa.

DEBAGOIENA

Musika Bulegoa sariak Neomak eta Ines Osinagarentzat

Musika Bulegoa elkarteak euskal musika panoramako 2022ko proiekturik esanguratsuenen artean kokatu zituen Neomakek eta Ines Osinagak iaz aurkeztutako lanak. 120 proiekturen artean, beste sei talderi eman zizkieten sariak: 2.000 euro eta Fernando Mikelarena artistak egindako eskultura.



ARRASATE

Arrasateko Udalak kontratua eten zuen Avanza enpresarekin

Maiatzaren 3an, Avanza enpresaren autobus batek su hartu zuen Obenerreka kalean. Zorionez, ez zen zauriturik izan eta suhiltzaileek sua itzaltzea lortu zuten. Hurrengo egunean, Arrasateko Udalak enpresarekin zeukan kontratua eten egingo zuela iragarri zuen, gertatutakoa "oso larria" zela adierazita.



oerlikon
balzers

Uste
berri on!

Oerlikon Balzers
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2
20577 Antzuola
Tel.: 943 76 62 08

info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es

ARRASATE

Itsaso Plaza Txirrindularia

Arabako Itzulia irabazi zuen maiatzaren 7an Igamo Packaging taldeko gazte mailako ziklistak, Laudioko kronoigoeran azkarrena izanda eta Legutioko etapan hirugarren sailkatuta.



ARRASATE

Euskaldunen hizkuntza eskubideak

"Euskararen aurkako oldarraldia" salatzeko, elkarretaratzea egin zuten Herriko Plazan hilaren 10ean. Azkenaldiko hizkuntza urraketak aipatu eta azaroaren 4ko Bilboko manifestaziora batzeko dei egin zuten.

ARRASATE

Euskaraz Bagara Nor dinamika

"Antolatzen diren ekitaldi eta emanaldietan euskarak erdigunea hartzea" helburu zuen dinamika aurkeztu zuen Ttak gazte taldeak. Udara arte iraun zuen kontzientziak astintzeko eta euskaraz bizitzeko ekimenak.

ARRASATE

J. Angel Barrutiabengoa


Historialariak *Napoleón jamás subió Gazteluondo* liburua aurkeztu zuen; 1808 eta 1813 bitartean frantziar okupazioan Arrasaten gertatutakoari buruzko ikerketa.



BERGARA

Gazte mailako mutilak, ezin hobeto

Bergara KEko gazte mailako mutilen futbol taldeak Euskal Ligatik Liga Nazionalera igotzea lortu zuen maiatzaren 21ean, Agorrosinen UDaren aurka berdindu eta gero. Klubeko presidente Iosu Elorzak adierazi zuenez, "lorpen historikoa" izan zen, lehen aldiz jokatu zutelako mahoneroek Liga Nazionalen.



DEBAGOIENA

EH Bildu nagusi udal hauteskundeetan

Bailarako zortzi herritan –Leintz Gatzagan Hautesle Elkarteak bakarrik aurkeztu zen– irabazi zituen EH Bilduk maiatzaren 28ko hauteskundeak. Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako alkatetzak berreskuratu zituen, eta beste herrietakoak mantendu. Grafikoan, Debagoien osoko udaletako eserlekuen banaketa.

ELGETA

Trikitilarien eta pandero-joleen topaketa "bikaina"

Debagoieneko Trikitixa Eguna ospatu zuten Elgetan maiatzaren 6an. Goizeko saioaren ondoren, 375 laguneko bazkaria egin zuten pilotalekuan; kalejira erraldoiaz eta Ttipika taldearekin dantzal-diaz borobildu zuten topaketa. Bailarako eskoletakoak eta Sorraluzekoak, Lekeitiokoak eta Legutiokoak elkartu ziren.



BERGARA

Euskal Herrian egindako motorrak ikusgai Aroztegin

Maiatzean ikusgai izan zen Bergarako Aroztegi aretoan, XX. mendean Euskal Herrian egindako motorren eta belomotorren erakusketa. Miguel eta Agustin Lazpiur anaiek zaharberritutako hogeita bost motor erakutsi zituzten. Aroztegi aretoan urtean egin diren erakusketen artetik ikusienetakoa izan da.



Ebaketa zehatzetik haratago

imets individual batetik proiektu kolektibo batera

ELAY EUROPA
ELAY ASIA
ELAY AMERIKA

Lizarragako Hiribidea z/g
20577 Antzuola (Gipuzkoa)
www.elay.eus

BERGARA

Orfeoiaren 100 urteko ondarea ikusgai

Bergarako Orfeoiaren mendeurreneko ospakizunen barruan, erakusketa jarri zuten Aroztegin hilaren 5etik 11ra. Argazkiez eta bideoez osatutako erakusketa izan zen eta hainbat herritar erakarri zituen.

OÑATI

'Beita' websailaren estreinaldia

Oñatiko Xup antzerki taldeak hilaren 16ean estreinatu zuen, Santa Ana antzokian, *Beita* websailaren lehen kapitulua. Harrera ona izan zuen; antzokia goraino beteta, txalo zaparrada luzeak jaso zituzten egileek.

BERGARA

Mila Elortzak boto gehien Angiozarren

Hilaren 25ean egin zituzten Angiozarko alkatea eta bertako batzarreko hautetsiak aukeratzeko hauteskundeak. Mila Elortzak jaso zituen boto gehien; botoa eman zuten 138 lagunetatik 48k Elortzari eman zioten.

ELGETA

Debagoieneko Atzegi Eguna, jai giroan

Ekainaren 3an ospatu zuten Atzegi Eguna Elgetan. 120 bat lagun elkartu ziren eguna jai giro ederrean igarotzeko. Pandemia aurretik herriz herri egiten zen ospakizuna berreskuratu zuten Elgetan, arrakastaz.



BERGARA

Soraluceren muntaia-planta berria Osintxun

Hilaren 14an inauguratu zuen Soraluce enpresak 2.530 metro koadroko muntaia-planta berria Osintxun. Planta berria ikuspuntu jasagarritik diseinatu eta eraiki zuten, *Leed Gold* ziurtagiriarekin. Inaugurazio ekitaldian izan ziren, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arantxa Tapia sailburua.



ARRASATE

"Herri bizi bat" islatu zuten San Juan jaiak

Sanjuaneak zapore gozoa utzi zuten. Maider Morras alkate izendatu berriak "pozik eta energia onarekin" ikusi zituen arrasatearrak, "jaiez gozatzeko"; Morrarak lehen aldiz egin zuen dantzan suaren bueltan. Jaiak jendetsuak eta parte-hartzaileak izan zirela esan zuen: "Bizitzaz beteriko Arrasate baten lekuko izan gara".



DEBAGOIENA

Hainbat mobilizazio LGBTI komunitatearen eskubideen alde

Hilaren 28ko LGBTI komunitatearen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekintza egin zituzten Debagoiengan. Salatu zuten, besteak beste, oraindik "trufak, irriak edota irainak" jasaten dituztela: "Arduradun politikoen interes falta sufritzen ari gara, sektore faxistenetatik datozen eraso zuzenekin batera".



DEBAGOIENA

Urteko batzar orokorra egin zuten Ekiolak

Hilaren 21ean egin zuten Ekiolak 2023ko batzar orokorra, Arrasateko Juan Arzamendi Musika Etxean. Azpimarratu zuten, besteak beste, sozializazio kanpainarekin jarraitzeko asmoa zutela eta Arrasaten parke fotovoltaikoa eraikitzeko finantzaketa lortu ostean lanak hasita zeudela.

ilaia Urte berri on!!
ILE APAINDEGIA

f i

Kalebarren 1, behea ANTZUOLA
 943 76 63 33
 ilaia83@hotmail.com

BERGARA**Asier Garitano** Entrenatzailea

Asier Garitano (Bergara, 1969), besteak beste Realeko eta Alaveseko futbol entrenatzaile ohia, Tenerifeko entrenatzaile izendatu zuten. Bigarren mailan ari da Tenerife denboraldi honetan.

ARRASATE**Doke antzerki taldearen beste obra bat**


Hilaren 2an estreinatu zuten Doke taldeak *Hemen ez du inork ordaintzen* antzezlan. Vene Herrero zuzendu zuen 1974an Dario Fok idatzitako obra; euskaratu eta egokitu Josemari Velez de Mendizabalek egin zuten.

BERGARA**Burdinolak galdu, maila ona emanda**


Hileko lehen asteburuan jokatu zen Espainiako Hockey Txapelketa, Labegarietan, infantil mailako kategorian. Burdinolak finalerako sailkatzea lortu zuten; Vila-Realen kontra galdu zuten (5-4).

ESKORIATZA**25. Ferixie bereziki jendetsua izan zen**

Ekainaren 3an egin zuten Arizmendi Ikastolak Eskoriatzako Ferixien 25. aldia. Eguraldia lagun, jende asko ibili zen kalean zehar jarritako askotariko postuak bisitatzen eta egun oso egitarauaz gozaten.

**DEBAGOIENA****EH Bilduko alkateak nagusi udalbatzen eraketan**

Hilaren 17an eratu ziren udalbatzak eta izendatu zituzten alkateak Debagoiengan ere. Leintz Gatzagan izan ezik –han hautesle elkar-tea izan zen lehen indarra–, bailarako gainerako herrietan EH Bilduko alkateek hartu zuten kargua; kolore aldaketa izan zen Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan.

**BERGARA****Omenaldi hunkigarria Jose Agustin Aranzabal 'Gaztelu'-ri**

Hilaren 10ean omendu zuten Bergarak inoiz eman duen futbolari esanguratsuen, Jose Agustin Aranzabal *Gaztelu*. Senitartekoak omendu ostean, Bergarako eta Realeko beterenoen arteko partidua jokatu zen. Besteak beste, han izan ziren Jesus Mari Zamora, Roberto Lopez Ugarte eta Santi Idigoras.

DEBAGOIENA**Gipuzkoako tripaki onenak, Aretxabaletako losu harategikoak**

Harreman gobernuz kanpoko erakundearen 24. Elkartasun Egunaren bueltan, lehen aldiz antolatu zuten Gipuzkoako Tripaki Txapelketa Arrasaten. 26 harategik hartu zuten parte: Aretxabaletako Iosu izan zen lehena, Bergarako Antia bigarrena eta Arrasateko Otamendi hirugarrena.

BERGARA**Ekinez jaialdiaren bigarrena ere, "ederra"**

Hilaren 9an eta 10ean egin zen Ekinez jaialdiaren bigarren edizioa, Bergarako Labegarieta auzoan. Antolatzaileen arabera, "ederra" izan zen bigarrena ere: "Hirugarren edizio bat egongo da, bai. Zalantza barik. Baina ez dakigu datorren urtean izango den edo bi urte barru", esan zuten Ekinez elkarterko Julen Iñarrak.

**ARRASATE****AEDren 40. urteurrena: ospakizunei ekiteko, erakusketa Kulturaten**

Ekainaren 1ean ireki zuten, Kulturaten, *40 urte Arrasate euskalduntzen* izeneko erakusketa. AEDren ibilbidea laburbiltzen zuten argazkiz, kartekez, produktuz eta panelez bete zuten klaustroa, eta liburutegia ere baliatu zuten AEDri buruzko dokumentuak eta argitalpenak herritarren eskura uzteko.



Urte berrian,
asmo berriak.
2024 on.

www.erreka.com

ERREKA

ARETXABAETA

Lapurreta Portasolgo jaietan

Portasolgo jaietan Jai Batzordeak Markolen zuen lokalera dirua lapurtzera sartu zenak 15.000 euro eraman zituen. Horren aurrean, antolakuntzatik *crowdfunding* bat jarri zuten abian, eta 8.500 euro batu zituzten.

DEBAGOIENA

Agur maskaren derrigortasunari

1.200 egun baino gehiagoren ondoren, uztailaren 5ean esan genion agur maskarari. Ordura arte osasun-zentroetan, adinekoren egoitzetan eta farmazietan erabiltzeko derrigortasuna zegoen.

DEBAGOIENA


Udalek ezin euskara hutsean jardun

EAEko Udal Legeak udalei euskara hutsean jarduteko ematen dien aukeraren kontra, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak sententzia ebatzi zuen; elkarretaratzeak egin zituzten hori salatzeko.

ARRASATE

Sutea Sara baserrian

Uztailaren 15ean izan zen sutea, eta jatetxea ez, baina baserria kiskalita geratu zen. Sua amatatzeko suhiltzaileek erabilitako ura sartu zen jatetxean, baina bi egunetara zabalik zegoen osterara ere.



ITURRIA: ESPAINIAKO GOBERNUA

DEBAGOIENA

EH Bildu lehen indarra eskualde osoan

Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan EH Bildu izan zen eskualdeko herri guztietako lehen indarra, eta PSE-EEk ere nabarmen egin zuen gora, udal hauteskundeak kontuan izanda. %68,36ko parte-hartzea erregistratu zen Debagoiengan; 2019ko hauteskundeekin alderatuta, bi puntu egin zituen behera.

BERGARA

Labegaraietako ur parkea zabalik; herriko bigarrena


Kiroldegiaren alboan bigarren ur txorroten parkea ireki zuten uztail erdialdean. Bi hilabete iraun zuten lanek. 271 metro karratuko azalera du aisialdirako gune berri horrek, eta ur txorrotekin bustitako eremuak 160 metro karratu hartu ditu orotara. Parkeak handitzeko aukera ere ematen du.



ARRASATE

Maria Ubarretxena Gipuzkoako foru gobernuko kide berri

Uztailaren 4an Donostian egin-dako ekitaldian hartu zuten kargua ofizialki Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusi berria buru izango zuen foru gobernuko kideek; tartean, Maria Ubarretxenak. Arrasateko alkate ohia Bide Azpiegiturako diputatu izendatu zuten ekitaldi horretan.



DEBAGOIENA

Axpek urrea, Ruiz de Azuak eta Calbanok zilarra

Valentziako Torrent hirian Espainiako aire libreko atletismo txapelketak jokatu zituzten. Pertika saltoan Maialen Axpek urrezko domina irabazi zuen (4,37), eta bigarren sailkatu zen Malen Ruiz de Azua. Eta 200 metrotako lasterketan Andoni Calbanok ere zilarrezko domina irabazi zuen.

ARRASATE

Mondra&Roll eta Arrasate Blues, arrakastatsu

Musikazaleek gozatu ederra hartu zuten bi hitzordu horietan –eta antolatzaileek hala baloratu zuten–. Mondra&Roll-en lehengo edizioa gainditzea zaila zen, baina bigarrenak ere denak ase zituen. Eta Arrasate Blues-ek emandakoa defintzeko, "mundiala" berba erabili zuten antolatzaileek.



MUJIKA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

HARATEGIA

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



Uste berri on!

OÑATI

Aierten azken bideoklipa ikusgai

Danbaka Musika Lehiaketako Publikoaren Saria irabazi ostean, Aiert artista oñatiarrak uztailearen 27an erakutsi zuen *Omen ala behar* izeneko lana. ABAO Komunikazio Agentziako profesionalekin egin zuen lana.

ARRASATE

Lan-istripuak salatu zituzten

Uztailean Arrasaten langile bat hil eta beste bat larri zauritu zirela salatzeke elkarretaratzea egin zuten hilaren 26an Arrasateko plazan, LAB, ESK, STEILAS, HIRU eta EHNE sindikatuek deituta.

ARRASATE

David Gomez Mendi lasterkaria

Lehen aldiz hartu zuen parte aurten hamahirugarren edizioa izan duen Ehun Milak lasterketan, eta arrasatearra hirugarrena izan zen bere lehen aldian.



ARETXABALETAKO

Bi lagun EuskarAbentura ekimenean

Haizea Duandikoetxea eta Etxahun Iturriotz aretxabalearrak Euskal Herria zeharkatzen aritu ziren oinez. Hala, euskara, kultura, osasuna, ekologia eta parekidetasuna jorratu zituzten ekimenean.



DEBAGOIENA

Frantziako Tourra, bailarako errepideetatik

Uztailearen 2ko etapan, Frantziako Tourreko tropela Aramaiotik sartu zen Debagoienara, eta Arrasate eta Oñati gurutzatu ostean Udاناتik abiatu zen Donostiarantz. Milaka lagun batu ziren bide bazterrean. Victor Lafay izan zen azkarrena, Kursaal parean egin zuten esprintean nagusituta.



ARETXABALETAKO

Bi lagun zaurituta tiroketa baten ondorioz

Gizonezko batek bi lagun zauritu zituen suzko arma batekin tiro egin eta gero. 39 urteko aretxabalearra espetxeratzeko agindua eman zuen epaileak, giza hilketa eta armak legez kanpo edukitzea leporatuta; Ertzaintzak armak eta lehergailuak egiteko erabili ohi diren substantziak aurkitu zituzten.



DEBAGOIENA

GOIENA aldizkariak 1.000 zenbaki

Uztailearen 7ko alea berezia izan zen GOIENA aldizkariarendako, egubakoitz hartan 1.000. alea banatu zelako Debagoieneko etxetan. 2000. urteko abenduan kaleratu zen lehenengo *Goienkaria*, eta ordutik 23 urte joan dira. Garai bateko herri aldizkariak ere digitalizatu ziren, eta *Goiena.eus*-en daude ikusgai.



Gualbi

aholkularitza

Urte berri on!

**ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOAKULARITZA**

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!





Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com
Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasores.com

ANTZUOLA

Gasteizen txapeldun

Gasteizko Pilota Masterreko finala irabazi zuen Leire Galeano antzuolarrak (22-10) Foruen plazan, Arrizabalaga bikote zuela, bailarako beste bi pilotariren aurka: Etxegarairen eta Bergararen aurka.

OÑATI

Jonan Ordorika hil zen

30 urte baino gehiagoko eskarmentua zuen musika ekoizle eta musika teknikari oñatiarra zendu zen. Ordorikaren heriotzaren berri izatean, hainbat pertsonak zabaldu zituzten mezuak sare sozialetan.

ARRASATE


Lezetxiki kaltetu zuena, atxilotuta

Ondare historikoaren aurkako kaltea eta espoliazio arkeologikoa leporatu zizkion Ertzaintzak arrasatearrari, Lezetxikin lagin-zulo klandestinoak, pintadak eta grafitiak egin zituelako.

BERGARA

Hildako bat auto istripu batean

54 urteko gizonezko bat hil zen Bergaran bi autok talka egin ostean. Ezbeharrak GI-627 errepidean gertatu zen, Maltzagarako noranzkoan. Beste autoko gidaria ospitalera eraman zuten pronostiko erreserbatuarekin.



DEBAGOIENA

Alavesek fitxatu zuen Andoni Gorosabel futbolari arrasatearra

Hamar urtez Realeko jokalaria izan ostean, Gasteizko Deportivo Alaves taldeak fitxatu zuen abuztuaren 11n Andoni Gorosabel futbolari arrasatearra. 2017an egin zuen debuta talde txuri-urdinarekin, eta Donostiako taldearekin kontratua amaitzeko urtebete falta zitzaionean utzi zuen taldea.

BERGARA

Egoiliarren zaintzara bideratutako ekimena aurkeztu zuten

Estatu espainiarretik eta Euskal Herritik iritsitako hogeitaz gazte inguru auzolandegian aritu ziren Bergarako Mizpirualde adinekoen egoitzan abuztuaren 1etik 14ra bitartean. Bi aste horietan, hainbat jarduerak egin zituzten, boluntarioen konpainiarekin.



DEBAGOIENA

Markesina berriaren lanak amaitu zituzten

Ekainaren 22an hasi zituzten Elorregiko autobus geltokia eraberritzeko lanak, eta abuztuaren 11rako amaituta zituzten bai marquesina, baita alboan jarri zuten bizikletentzako aparkalekua ere. Construcciones Aplibur SL enpresa aritu zen eraberritze lanak egiten, eta 203.542,09 euroko aurrekontua izan zuten, BEZa barne.



EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE

Unai, Arbe eta Peixoto Arrasatera!

IRATI · TAUPA · BASATI · ILUNTZ

JAI ZALE · DAT · OSORIK

URTARRILAREN 13AN DENOK BILBORA!

ARAMAIO**Txema Abarrategi zendu zen**

Txirritola euskara elkartearen sustatzailea, bertsozalea eta bertsogintzaren bultzatzailea izan zen Abarrategi. Goienaren sorreran ere jardun zuen Txirritolatik, eta errektore kontseiluko kide ere izan zen.

BERGARA**Beñat Labaien** Entrenatzailea

Japoniako bigarren mailan jokatzen zuen Tokushima Vortis taldeak kargugabetu egin zuen Beñat Labaien bergararra, bederatzita hilabetez bertako entrenatzaile izan ostean.

**DEBAGOIENA****Bi alarma gorri Debagoiengan**

Euskal Autonomia Erkidego osoa alerta gorrian egon zen muturreko tenperatura oso altuengatik. Debagoienari dagokionez, Bergara Gipuzkoako herririk beroena izan zen, 42 graduko tenperatura gaindituta.

DEBAGOIENA**Gerrako umeen artxiboa, digitalizatuta**

Intxorta 1937 elkarteak gerrako umeen inguruan egindako ikerketa digitalizatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. 10.445 kasu identifikatu zituen elkarteak, eta omenaldia egin zitzaion Kursaaleari.

**ARETXABAETA****Ander Ganzabal gailendu zen Leintz Bailarako Itzulian**

Abuztuaren 16an jokatu zen Leintz Bailarako 84. Itzulia, eta Laboral Kutxa taldeko Ander Ganzabal izan zen azkarrena. Guztira 161 txirrundulari bildu ziren irteera puntuan, eta Lucas Josephek eta Sergio Truebak osatu zuten podiuma. Bailarako txirrundulari azkarrena Aimar Erostarbe oñatiarra izan zen.

**OÑATI****Musika Hamabostaldia ospatu zen Arantzazun**

Abuztuaren 24an, Musika Hamabostaldiak geldialdia egin zuen Arantzazuko santutegian kontzertua eskainiz, urteroko ohiturari jarraituz. Aurtengoan, Conductus Ensemble taldeak eskaini zuen emanaldia, Andoni Sierraren zuzendaritzapean. Vivaldi italiararren lanak izan ziren nagusiki entzungai kontzertuan.

DEBAGOIENA**Debagoiendarrak lehen postuetan, Oroelen**

Oroeleko igoera jokatu zen abuztuaren 13an, Jakan (Espainia). Parte hartzaileen artean izan ziren debagoiendarrak ere, eta lehen postuetan amaitu zuten hiruk: Malen Osa eta Nerea Arregi –mar-txa modalitatean– oñatiarrak azkarrenak izan ziren emakumez-koetan; Ibai Larrea antzuolarra bigarrena izan zen gizonezkoetan.

ALDEDI

Urte berri on!

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu

ARRASATE

IV. Nazio Konferentzia

Sortuk antolatuta, IV. Nazio Konferentzia egin zen Uarkapeko frontoian, eta ehunka lagun elkartu ziren bertan, ikasturteko balorazioa egiteko eta datozen urteetako plan politikoa berresteko.

DEBAGOIENA

Emakume futbolari ohiak, batuta

Debagoieneko Agurtzane Elkoro, Sokoa Azkarate, Oihana Aldai eta Olatz Legarda futbolari ohiak elkartu ziren, bizipen pertsonaletatik abiatuz egiturazko aldaketan beharrak aldarrikatzeko.

DEBAGOIENA

Irati Iciar Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria

Irailaren 22an Euskaltzaleen Topaguneko Ermuan egin zuen Batzar Orokorrean, oñatiarra izendatu zuten lehendakari, Kike Amonarrizen ordean.

DEBAGOIENA

Pentsionistek ekin zioten ikasturteari

Pentsiodunek irailako lehen astelehenean berrekin zioten asteroko mobilizazioei. Aldarrikapenen artean: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta erreiro-adina atzeratzeko azken erreforma indargabetzea.



ARETXABAETA

Bertako tomatearen Euskal Herriko txapelketa

Aretxabaletako Tomate Astearen barruan, lehenengoz, Euskal Herriko Tomate Txapelketa antolatu zuten. Bizkai, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako 18 parte-hartzailek 33 tomate barietate aurkeztu zituzten; zazpi debagoiendar aurkeztu ziren, eta Juan Pedro Santos iruindarra izan zen txapelketaren irabazle.



DEBAGOIENA

Udako Master Laboral Kutxako txapeldun

Leire Galeano antzuolarrak eta Olatz Arrizabalagak osatutako bikoteak 22-12 irabazi zion Uxue Oses oñatiarrak eta Amaia Aldaik osatutakoari, irailaren 24an, Hondarribian. 500 ikusle ingururen aurrean. Madalen Etxegarai oñatiarrak, bere aldetik, hirugarren postua lortu zuen torneo berean Enara Gaminderekin.

ARRASATE

Emozioz bete, Espainiako Gerran hildakoen omenaldia

Tropa frankistak herrian sartu zirela 87 urte bete ziren, eta, urtero legez, Espainiako Gerra Zibilean hildako debagoiendarrak omendu zituzten irailaren 26an, Arizmendiarrak plazako molitoaren bueltan. Dantza, musika eta kantuak izan ziren protagonista, aldarrikapen eta emozioz beteriko egunean.



ANTZUOLA

Antzuolako frontoiak 125 urte bete zituen

1898ko abuztuaren 28an inauguratu zen arren, irailaren 1ean ospatu zuten frontoiaren urteurrena. Puntako jaialdia antolatu zuten, eta Masters Caixabank ligako finalerako txartela lortzeko partida jokatu zen: Ezkurdia eta Mariezkurrena Larrazabalen eta Zabale-taren aurka. 22-11 irabazi zuen lehenengo bikoteak.



UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com



ARAMAIO

Sagardo eguna

Aramaioko baserri eta etxeetan egindako sagardoaz gozatzeko aukera izan zuten aramaioarrek. Sei ekoizleren sagardoa dastatzeko aukera izateaz gain, plazan bertan zukua egin eta dastatu zuten.

ARRASATE

Sortuk Nazio Konferentzia egin zuen

VI. Nazio Konferentzia egin zuen irailaren 23an Arrasaten Sortuk. Uarkape frontoian elkartu ziren alderdikideak. Presoen sakabanaketa amaitu izana eta hauteskundeetako emaitza onak nabarmendu zituzten.

DEBAGOIENA

MUren ikasturte hasiera

Iñigo Urkullu lehendakariak eman zion hasiera Oñatiko Enpresagintza fakultatearen ikasturteari; bertan izan ziren, halaber, Bixente Atxa errektorea eta Idoia Peñakoba unibertsitateko idazkari nagusia.

BERGARA

Nerea Agirrezabal Arraunlaria

Tolosaldearen trainerura igotzearekin bakarrik historia egin zuen bergararrak; izan ere, Kontxako Banderan lehiatu zen lehen debagoiendarra izan zen.



ANTZUOLA

Mairuaren Alardeari aitortza egin zioten

Irailaren 3an eta epaimahaikideen erabateko adostasunarekin Hondarribia Berdintasun Hiria Saria jaso zuen Antzuolako Mairuaren Alardeak, Jaizkibel Konpainiaren eskutik. Genero berdintasuna, arrazakeriaren kontrako borroka eta transmisioa egiteko gaitasunaren aitortza jaso zuten besteak beste.



ARRASATE

Amaia antzokiko sabaia erori zen

Arrasateko Amaia antzokia itxi egin zuen Udalak irail erdialdean, hall-eko sabaiaren zati bat erori ostean. Sei plakako sabaitik, bi izan ziren eroritakoak, bakoitza bi tonako pisuarekin. Antzokiaren egoera ikusita, bertan behera utzi behar izan zuten aurreikusita zeukaten egitaraua.



BERGARA

Adiskide numerario izendatu zuten Valen Moñux

Bergarako ondare artistikoa eta kultura musikala sustatzeagatik, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak adiskide numerario izendatu zuen Valen Moñux. Musikak eta antzerkiak leku garrantzitsua izan zuten ekitaldian, eta gertuko lagunek eta senitartekoez sorpresa ugari prestatu zizkioten bergararrari.



ESKORIATZA

Helburu guztiak bete zituen Errekan Gora jaialdia

Atxorrotx Kultur Elkarteak antolatuta, XV. Errekan Gora jaialdia egin zen. Irailaren 15ean hasita, 48 orduz, herritarrek edizio askotarikoaz gozatzeko aukera izan zuten; tokiko musikariak eta emakumeen presentzia handia izan ziren. Zazpi kontzertu antolatu zituzten, eta oso jendetsuak izan ziren guztiak.



BERGARA

Jesus Aranzabal zendu zen irailaren 27an, 83 urte zituela

Jesus Aranzabal Ojanguren hil zen irailaren 27an, 83 urterekin. Angiozarren jaiotako txirrindulari ohia Fagor eta BIC taldeetan nabarmendu, eta Frantziako Tourrean eta Espainiako Vueltan lehiatu zen. Familiakoak, herrikoak eta belaunaldiko txirrindulari asko batu ziren Angiozarko hileta elizkizunera.



DEBAGOIENA

Sektore publikoko grebak, eragina

ELA, LAB, CCOO, SATSE, Steilas eta ESK sindikatuek, sektore publikoan, urriaren 25ean deitutako grebak eragina izan zuen Debagoiengan ere. Udal zerbitzuetan eta hezkuntza publikoan igarri zen bereziki.

BERGARA

Arrate Bergara Pilotaria

Urriaren 15ean, Bizkaiko frontoian jokaturako *Hiru hiriburuak* binakako txapelketa irabazi zuen Arrate Bergara pilotari bergararrak Amaia Aldairekin batera (22-19).



OÑATI

2023ko herri turistiko onena

Nazio Batuen Turismoaren Mundu Erakundeak *Best tourism village 2023* saria eman zion Oñatiri. Uzbekistanen jokatu zen hirugarren edizioan 260 herri baino gehiago aurkeztu ziren eta 54 sailkatu ziren.

ARRASATE

Iñigo Alzola Mendi lasterkaria

Anbotoko Kilometro Bertikala txapelketa irabazi zuen, 40.03 eginda. Astebetara, Alzola Arrasateko plazatik Udalatx puntara 39 minutu eta 24 segundora irazi zuen.



ARRASATE

Emakume Txokoak 20 urte bete zituen

Emakume Txokoaren 20. urteurrena ospatzeko, *Emakume Txokoak 20 urte!* erakusketa zabaldu zuten Kulturateko Klaustroan. Urteetan egindako lana batu zuten argazkietan, karteletan, pankartetan eta ikus-entzunezko batean. *Nahinorahiri* jardunaldiak ere egin zituzten, urteurrena borobiltzeko.



DEBAGOIENA

Mankomunitateko lantalde berriaren sorrera


Garaiko erronkei erantzuteko, urriaren 18an Mankomunitateko lantalde berria eratu zen, eta "governantza eredu kooperatibo baten alde" lerrokatzen zirela adierazi zuten. Dorleta Elkorobarria Leintz Gatzagako alkatea izendatu zuten lehendakari berri, eta Xabier Igartua lehendakariorde.



BERGARA

Galarraga eta Murgiondo, dantza txapelketako garaile

Urriaren 21ean Seguran jokaturako 47. Euskal Herriko dantza askatu txapelketan garaile izan ziren Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bergararrak; egindakoarekin "gustura" gelditu zen bikotea. Guztira, zazpi aldiz aurkeztu da txapelketara bikotea, eta azken bost urteetan hiru garaipen eskuratu ditu.



ANTZUOLA

Aiastui txirrindulari elkartearen mende erdia

Oztopoei aurre eginaz, Aiastui txirrindulari elkarteak 50 urte bete zituen urrian. Txirrindularitzarekiko zaletasunak herrian iraun dezan lan handia egin du mende erdiz Aiastui elkarteak. Herritarren laguntzarekin txapelketak antolatzen ditu elkarteak; besteak beste, Antzuola saria, Uzarragako igoera eta *Challenge* probak.



ARRASATE

Andaluziako Elkartearen Euskadiko 33. Topaketa

Zortzi urte igaro eta gero, Arrasaten ospatu zen Andaluziako Elkartearen Euskadiko Topaketa. 33. edizioa arrakastatsua izan zen; 395 lagunek hartu zuten parte ekitaldian. Errozio mezarerekin ekin zioten egunari; gero, Euskadiko zenbait elkarteren dantza emanaldiak izan ziren; eta bazkaria egin zuten ostean.



BA BEHI-ALDE
ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.
Oleta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
44 pk
20500 Arrasate

urte berri on!



Tel.: 945 45 01 00
bulegoa@behialde.com

ARRASATE

Ane Zabala Mendi lasterkaria

Hiru Handiak mendi lasterketan sari bikoitza lortu zuen Ane Zabalak; izan ere, 14.30.02 eginda, emakumezkoen mailan eta beteranoen artean nabarmendu zen.



DEBAGOIENA

Emakume pentsiodunak

Euskal Herriko Emakume Pentsiodunen Mugimenduak hirugarren batzarra egin zuen Bergaran, zaintza oinarri hartuta; zaintza emakumeen betebeharra bakarrik ezin dela izan aldarrikatu zuten.

ESKORIATZA

Julen Arriolabengoa

Txirrindularia

Euskaldun torneoa irabazi eta Lehendakari txapelketako hiru lasterketatan eskuratutako garaipenei esker, profesionaletan ariko da eskoriatzarra, Caja Rural taldearekin.



ARETXABAETA

'Kuartela herrira!', ekitaldiz josia

Helburua aretxabalarrei eraikinean zeintzuk eta zertarako batzen diren erakustea izanik, urriko hiru zapatutan hamahiru sortzailek kontzertuak eskaini zituzten herriko hainbat txokotan.



DEBAGOIENA

Debagoiendarrek Deba ibaia garbitu zuten

Bailara mailako bigarren auzolan deialdiak Debagoieneko herri guztietan izan zuen oihartzuna; hilaren 21ean, bederatzi herrietako 600 lagun elkartu ziren, errekan batutako zaborra jasotzeko. Deba ibaian eta ibai-adarretan ibili ziren garbiketa lanetan, eta iaz baino zikinkeria "gutxiago" zegoela adierazi zuten.



DEBAGOIENA

Palestinaren aldeko elkarretaratzeak bailaran

Palestinako herrialdearen eskubideak errespetatzea exijitu zuten debagoiendarrek. Palestina jasaten ari den "genozidioa" salatuz, elkarretaratzeak antolatu zituzten bailarako herri guztietan; artean, arrasatearrak *Palestina askatu! Genozidioa gelditu!* lelopean batu ziren Herriko Plazan hilaren 20an.

ARAMAIO

Aramaioko Gazte Txokoaren inaugurazioa

12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduriko Gazte Txokoa inauguratu zuten urriaren 22an Aramaion. Kiroldegian egokitutako lokala Udalaren, Txirritola elkartearen eta herriko eragileen elkarlanetik irtendako emaitza da. Txokoa Txirritolak kudeatu eta Tximista Aisialdi taldeak dinamizatutakoa da.



ANTZUOLA

Aiherra-Antzuola: harremana sendotzen jarraitzeko prest

Hilaren 28an Antzuolan egin zuten, ahietarren eta antzuolarren arteko topaketa. Egun pasa "ederra" egin zuten, ahietarren antzezlan eta ehun bat lagunendako bazkaria izan zuten. Datorren urtera begira jarri ziren, izan ere, berezia izango da, herrien arteko senidetzak 40 urte beteko baititu.

**ION
ZERBITZUAK****Urte
berri on!!!****Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak****24 orduko zerbitzua****658 99 59 12**

ANTZUOLA

Meaka-Irimo plataforma sortu zuten

Trekutz parke eolikoari aurre egiteko asmoz sortu zuten hainbat herritarrek Meaka-Irimo herri plataforma hilaren 14an. Udalak Capital Energy enpresaren asmoen berri eman ondoren erabaki zuten taldea sortzea.

ARRASATE

St. Pauli-Mondra taldea desegin zen

Azaroaren 16an, hamahiru urteren ostean, Beste bat! St. Pauli- Mondra taldea desegin egin zen, bertako kideek ez zutelako onartu futbol taldeak argi eta garbi ez salatu izana Palestina jasaten ari zen genozidioa.

DEBAGOIENA

Bailara Elkartaren sorrera

Azaroaren 28an egin zuten Garaia Parke Teknologikoan Bailara Industrial Network elkartearen aurkezpena. Anton Costas eta Sara de la Rica ekonomialariek hitzaldia egin zuten ekitaldian bertan.

BERGARA

Georges Lakonberen funtsa erakusgai

Georges Lakonbe euskaltzainaren funtsa erakusgai ipini zuten Bergarako Olaso Dorrean azaroaren 9tik abenduaren 1era arte. Erakusketaren osagarri, bi hitzaldi ere antolatu zituzten bertan.



ARRASATE

Jesusi Etxebarria omendu zuten

Jesusi Etxebarriak 50 urte egin ditu musika erakusten, eta omenaldia egin zioten hilaren 18an Amaia antzokian, Perlata taldearen *Punkaren beste aldea* dokumentala estreinatzearekin batera. Antzokia bete egin zen eta ikusleen artean Etxebarriaren ikasle izandako asko, musikariak eta haren lagun ugari izan ziren.



ARRASATE

Brontzeko domina Aerobikeko Europako Txapelketan

Hirugarren postua lortu zuten azaroaren 19an, Antalyan (Turkia) jokatuak Aerobikeko Europako Txapelketan, Arrasateko Dragoi Taldeko gimnastek. Aerostep modalitatean aritu ziren Nahia Irazola, Uxue Azkue eta Maria Martiarena. Pozik zeuden emaitzarekin. Domina "opari bat" dela adierazi zuten.



BERGARA

Orfeoiaren mendeurrenean omenaldia

Bergarako Orfeoiak azaroaren 11n egin zuen mendeurreneko emanaldi berezia, eta bertan, urte hauetan guztietan zehar zuzendari izandakoak omendu zituzten. 200dik gora lagun aritu ziren eszenatokian, eta frontoia ia bete egin zen. Orfeoiak egindako ibilbidea eta izandako mugarri nagusiak gogora ekarri zituzten.



DEBAGOIENA

Arantzazu eta Udalatz, dokumentalen ardatz

Arantzazu. 36 zm, 5 mende, herri 1 eta *Udalatz, ura eta atxa* dokumentalen aurkezpen instituzionala egin zuten Arantzazuko Gandiaga Topagunean eta Amaia antzokian, hurrenez hurren. Pello Sarasua izan zen Arantzazuren gaineko dokumentalaren zuzendaria eta Eñaut Iturbe, Udalatzaren dokumentalaren gainekoa.

DEBAGOIENA

Indarkeria matxista salatzen asmoz, mobilizazioak 25ean

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Eguna izan zen azaroaren 25ean, eta, bortizkeria matxista salatzen asmoz, mobilizazioak egin ziren bailarako herri guztietan, Leintz Gatzagan izan ezik. Bizitzaren aldeko aldarria egin zuten mugimendu feministek, eta baita greba feminista orokorrerako deia ere.



LIZKER

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

• Lan aholkularitza

• Kontabilitatea

• Zerga aitortpena

Urte herri on!



ARRASATE

Euskaltzaleen Topagunearen kongresua

Hilaren 18rako antolatu zuen Arrasateko Euskaltzaleen Topaguneari, Juan Arzamendi Musika Etxean, hirugarren kongresua. Bertan, euskararen erabileran jauzi bat emateko estrategia berria onartu zuten.

DEBAGOIENA

Polizia-gehiegikerien biktimei aitortza

Polizia-gehiegikerien 12/2016 Legearen bidez, legezko aitortza jaso zuten beste 66 biktimek azaroaren 2an, eta, horrekin batera, omenaldia egin zitzaizen biktime guztiei Donostiako Kursaal jauregian.

OÑATI

Iñaxio Ibarondo Zuzendaria



55 urtean zehar San Migel parrokiako abesbatzen zuzendaritzan eginiko lanaren eskertza eta aitortza jaso zuen Iñaxio Ibarondok, azaroaren 26an, herriko parrokian.

OÑATI

Esteban Urzelaiaren korua garaile

Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Suhar koruak irabazi zuen Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa, hilaren 5ean. Guztira, bost sari irabazi zituen zuzendari oñatiarraren koruak.



DEBAGOIENA

Greba Feminista Orokorra azaroaren 30ean

Zaintza izan zuen ardatz azaroaren 30ean egin zen greba feminista orokorra, eta zaintza eredu kolektibo baterako aldarria egitea izan zen grebaren helburu nagusia. Bailarako herrietako kaleak jendez bete ziren eta ekintza eta mobilizazio ugari antolatu zituzten herri bakoitzeko eragile feministek aldarri hori egiteko.



OÑATI

Euskal Herriko I. Hika topaketa antolatu zuten Eltzian

Euskal Herri osotik etorritako 80 lagun elkartu ziren hilaren 10ean Eltzian, Euskal Herriko I. Hika topaketan parte hartzeko. Herri batean eta bestean hitanoa bultzatzen ari diren eragileak batzea izan zen topaketaren helburua, elkar ezagutzeko eta elkarlanerako bideak planteatzeko asmoarekin.



OÑATI

'Gure katona' liburuaren aurkezpena

Azaroaren 24an aurkeztu zuen Roberto Altuna oñatiarrak *Gure katona: herrikoa, batua eta gaztelania bat eginda* liburuak, Oñatiko Euskaldun Berrien aretoan. Herriko euskara, euskara batua eta gaztelania uztartu ditu lanean, eta herriko euskaldunei zein erdaldun hutsak direnei zuzenduta idatzi du liburuak.

ARRASATE

Intxorta 1937 elkarteak Udalaren aitortza jaso zuen

Arrasateko Udalak Intxorta 1937 Kultur Elkartea omendu zuen hilaren 10ean, Kulturateko klausuroan, Bizikidetzako Batzordeak hala erabakita. Maider Morras Arrasateko alkateak ere hartu zuen hitza. Adierazpen instituzionala irakurri eta elkarteak memoria berreskuratzaren alde egindako lana nabarmendu zuen.



ARRASATE

Musakolako eguneko zentroaren inaugurazioa

Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusia eta Maite Peña Zainketetako eta Gizarte Politiketako diputatua izan ziren Musakolako eguneko zentro berriaren inaugurazio instituzionalean, eta, maiatzetik martxan izan zen arren, hilaren 29an inauguratu zuten Foru Aldundiak eta Aita Mennik irekitako zentroa.



ARAMAIO

Aramaioko alkateak kargua utzi zuen

Arrazoi pertsonalak argudiatuta, Aramaioko alkate zen Iban Herrartek kargua utzi zuen abenduaren 5ean. 2023ko ekainean hartu zuen aginte-makila eta sei hilabeteren ondoren hartu zuen uzteko erabakia.

ARRASATE

Jessica Reis, akordeoi-jole onena

Abenduaren 10ean jokatu zen 30. Arrasate Hiria nazioarteko akordeoi lehiaketa, eta Jessica Reis akordeoi-jole portugaldarrak jantzi zuen txapela zazpi nazionalitatetako hamabi partaideren artean.

OÑATI

Aimar Madina Txirrindularia

Aimar Madina oñatiarrak irabazi zuen abenduaren 10ean Seguran jokatu zen Gipuzkoako ziklo-kros txapelketa. 23 urtez azpikoen artean nagusi izan zen Caja Ruraleko txirrindularia.



DEBAGOIENA

'Jostailu hezitzailea' kanpaina abian

Abenduaren 1ean jarri zuen martxan Gurutze Gorriak *Jostailu hezitzailea* kanpaina, familia zaurgarrietako edo gizarte bazterkeriako arriskuan dauden familietako haurrek ere jostailu berriak izan ditzaten.



ARETXABAETA

Loramendi elkartearen 30. urteurrena


Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak 30 urte bete zituen, eta, ospakizunei hasiera emateko, elkarteko zuzendari Lierni Zangituk gidatu zuen ekitaldia xume bat egin zuten udaletxe zaharrean abenduaren 10ean. Lehen zuzendaritza taldekoak omen-du zituzten, aurrekuarekin eta egurrezko artelan banarekin.



ARRASATE

Arrasate Musikal: 50. urteurreneko kontzertua

Arrasate Musikalen 50. urteurrenaren baitan egin zuten abenduaren 19an Arrasateko Orkestra Sinfonikoaren *Ametsak betetzen* kontzertua. Egungo Orkestrako kideak eta kide ohiak elkartu ziren Uarkapen -denera, 110 lagun-, eta bi arrasatear zuzendari gonbidatu: Beatriz Arzamendi eta Unai Urretxo zuzendariak.



BERGARA

'Loratzen' diskoa aurkeztu zuten Seminarixoa

Herriko 23 musika talderen abestiz osatutako *Loratzen* diskoa aurkeztu zuten abenduaren 13an Seminarixoa, Bergarako musika eszenari balioa eman eta eza-gutzera emateko eta herriak musikalki daukan aberastasuna islatzeko asmoz. Auryn estudio-ko soinu-ingeniari Tristan Iñiguez grabatu zuen diskoa.

DEBAGOIENA

Ekiolako eguzki plaken parkea erakutsi zuten

Leintz Bailarako Ekiolak eguzki plaken instalazioa amaitu eta parkea erakutsi zuen abenduaren 14an. Bostehun wateko 2.520 panel ezarri zituzten Arrasateko Garaia Gunean, eta, aurreikuspenen arabera, gai izango dira 1.375 megawatt sortzeko orduko, 550-600 familiaren beharrak ase-tzearekin batera.



BERGARA

Elikaenea egitasmoa aurkeztu zuten, azoka biziberritzeko asmoz

Bergarako Udalak eta herriko Elikadura Mahaia osatzen duten hainbat eragilek abenduaren 4ean aurkeztu zuten datorren urteko udaberrian -aurreikuspenen arabera, apiril alderazabalik egongo den Elikaenea egitasmoa. Azoka biziberritzeko asmoz, Oxirondo azokan jarriko dute martxan ekimena.



Julen Uribeetxeberria Txintxurreta
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI • Tel.: 943 78 01 54 / 699 34 89 47

Urte
berri
on!



ESKORIATZA**June Larzabal** Artista

June Larzabal gazte eskoriatzarra izan zen Goiena Komunikazio Taldearen urte berri mezua egin zuen artista. Herriko buztinari balioa emateko lana egin zuen eskoriatzarrak.

ARRASATE**Alfontso VIII kaleak, izen berria**

Alfontso VIII kaleari izen berria jarri zioten abenduaren 12an, Zuztarrak Errotuz taldearen ekimenez abenduko ohiko osoko bilkuran aurkeztutako mozioa onartu ostean: '17 Emakume kalea'.

ARRASATE**Eneko Barberena** Idazlea

Multinazionalen hizkuntza politika egokirako hainbat gako lanarekin, Txillardegi-Hausnartu Soziolinguistika Saria jaso zuen Barberenak (Arrasate, 1983), 14an, Donostian.

BERGARA**'Izotz ondoko eguzki'-ren aurkezpena**

Bergarako Udalaren eta Badihardugu elkartearen *Izotz ondoko eguzki Bergarako euskararen historia soziala* (1940-1980) liburua aurkeztu zuten hilaren 4an udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

**ARRASATE****AEDren 40. urteurrenaren amaiera-ekitaldia**

Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkarteak egun osoko festarekin jarri zion ginga elkartearen 40. urteurrenoko egitarauari abenduaren 4an. Elkarteko bazkideak eta herritarrak, sorreratik 40 urte bete izana ospatzeko aurkezpen ekitaldian, kalejiran, magia saioan, bisita gidatuan eta baba-janean izan ziren.

**DEBAGOIENA****Durangoko Azokan izan ziren debagoiendarrak**

58. Durangoko Azoka egin zen abenduaren 6tik 10era bitartean, eta han izan ziren Debagoieneko hainbat sortzaile lanak aurkezten. Musikariak, liburu ekoizleak eta bestelako kultur artistak batu ziren, eta, hain zuzen ere, azokara joan zen jendetzaren aurrean erakutsi ahal izan zuten haiek ekoiztutako lanak.

**ARAMAIO****Asier Agirre izendatu zuten alkate, Iban Herrarteren orde**

Abenduaren 5ean jakinarazi zuen Iban Herrarterek Aramaioko alkate kargua utziko zuela, arrazoi pertsonalak tarteko; eta abenduaren 21ean izendatu zuen udalbatzak, ezohiko osoko bilkuran, Asier Agirre alkate. Lehenago ere, hain justu ere, 2007tik 2011ra arte, izan zen Aramaioko alkate Agirre.

**DEBAGOIENA****Debagoieneko herrietan Gabonetako azokak egin zituzten**

Zenbait herritan Gabonetako azokak izan ziren hilaren 15eko asteburuan: Arrasaten, Eskuar-tean Artisauen Kolektiboko Gabonetako azoka eta Txatxilipurdik antolatutako Jostailu Truke Merkatua; Oñatin, Elkar Heziren Elkartasun azoka eta herriko artisauena; eta Aretxabaletan, neguko azoka.



Durana
Hortz Klinika

INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

RPS: 63/19

Urte berri on!

Irati Iciar

Topaguneko lehendakaria

railean Ermuan egindako batzar orokorrean, Irati Iciarrek (Oñati, 1975) hartu zuen Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari kargua, Kike Amonarriz ordezkatzuz. Euskara "bidegurutzean" dagoela iritzita, euskararen erabilpenean "jauzi bat" ematea helburu duen "aro berri" bati ekingo diola aurreratu zuen batzar orokor hartan Topaguneak. Azaroaren 18an Arrasaten egin zuen hirugarren Kongresua Topaguneak, eta han zehaztu ziren aro berri horretarako oinarriak, *Batera jauzi* izeneko dinamikaren baitan.

Erreleboa Bide Azpiegituretan

Bestalde, Maria Ubarretxena (Urretxu, 1980) Arrasateko alkate ohia izan da 2023ko beste protagonistetako bat. Bide Azpiegituretako diputatu izendatua izan zen uztailean. Beste debagoiendar bat ordezkatu zuen karguan: Aintzane Oiarbide; Bergaran bizi den errenteriarra bi agintalditan izan da alor horretako diputatu.



Izaskun Larrañaga

Urteko enpresaburu onena

Izaskun Larrañaga (Bergara, 1979) Bergarako Ibili-Lacor enpresako kontseilari delegatuak jaso zuen otsailean aurtengo Aspegi saria. Emakume Profesional eta Enpresarien Elkarte da Aspegi. Emakumeek enpresa eta lanbide arloan egiten duten lanaren aitortza-saria jaso zuen Larrañagak, Enpresari kategorian. Ibili-Lacor taldeak 80 urteko ibilbidea du. Bergarako familia-enpresa sukaldaritzako ekipamenduen alorrean erreferente da munduan.

Kepa Bastida eta Mirari Zilaurren (Lana) eta Javier Garcia (Copreci)

Debagoieneko beste enpresa bat, Lana kooperatiba, ere nabarmendu da aurrean. Gipuzkoako Bazkundearen Gipuzkoako Enpresaren Sarietan, Enpresa Nazioartekotzea saria irabazi zuen martxoan Oñatiko kooperatibak. Kepa Bastida gerenteak eta Mirari Zilaurren presidenteak jaso zuten saria. Bestalde, Javier Garcia (Aretxabaleta, 1971) Copreciko zuzendari nagusi izendatu zuten azaroan. "Ilusioz gainezka nago, erronka oso indartsua da" esan zuen, kargua hartu berri.

Zutaz arduratzen gara

Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Skoda Kodiaq Seat Arona

Urte berri on!

UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71
udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com



Nerea Agirrezabal (Bergara, 1994) arraunlaria Tolosaldean aritu da aurten, eta arraun txapelketen artean garrantzitsuena den Kontxako Banderan nabarmendu da; izan ere, lehen txandan irabazle atera zen, aurreikuspen guztiak hautsiz. Egun historikoa izan zen irailaren 3koa Tolosako arraun taldearendako eta Agirrezabalendako. Lehen egun bikain haren ostean, azkenean, hirugarren geratu ziren Kontxakoan.

Mendi lasterkariak ere bikain

Bestalde, geroago eta mendi lasterkari gehiago ari da nabarmentzen, eta, horien artean, bereziki, emakumezkoak. Oihana Kortazar erreferentzia da. Aurtengo udan Teideko errekorra hautsi du. Aurretik, apirilean, Espainiako txapeldun izan zen. Ainara Urrutia aretxabaletarrak ere lorpen handiak izan ditu. Irailean Lombardian (Italia), bigarren izan zen, Grigne Skymarathon lasterketan.

Nerea Agirrezabal

Kontxako Banderan nabarmen



Esteban Urzelai

Abesbatza onenen artean nagusi

Esteban Urzelaik (Oñati, 1979) zuzentzen duen Suhar abesbatza izan da aurtengo Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketako protagonista. Irabazle nagusia izan zen azaroan jokatu zen lehiaketan. Bost sari irabazi zituen: folkloreako eta polifoniakoa, publikoaren saria, euskal obra baten interpretazio onenaren saria eta Kutxa Sari Nagusia. Urzelairekin batera beste lau debagoiendar daude Suhar koruan. "Sinistu ezinik" zegoen Urzelai jaialdiaren ostean.

Ines Osinaga eta Mainer Arregi

Ines Osinaga kultur gile arrasatearra ere nabarmendu da 2023 honetan. Musika Bulegoaren saria jaso zuen udan –Neomak taldeak ere bai–, eta, Korrika Sorkuntza beka irabazi ostean, abendu hasieran estreinatu zuen *Badon* opera postdramatiko garaikidea. Mainer Arregi bertsolari oñatiarrak, bestalde, III. Señora Sariketa irabazi zuen maiatzean, Oñatin.

Bergara •
metagra
México •
Group

**Gabon zorientsuak eta
 urte berri on!**

Gerren eragin negatiboak eta feminismoaren indar erakustaldia

Lau debagoiendarrek askotariko gaiak izan dituzte berbagai; izan ere, gizarteari dagokionez, 2023a gozoa baino gehiago gazia izan da, baina izan dira gertakari positiboak ere, esperantzarako zantzuak



MIKEL ARREGI ASKASIBAR
KAZETARIA

Feminismoaren urtea, beste behin

Mugimendu feministak zapore gazi-gozoz hasi zuen urtea Estatuan. Martxoaren 8aren bezperan, Kongresuak *Bai bakarrik da bai* legearen erreforma eztabaidatu eta onartu zuen, eskuineko alderdi eta komunikabideek lege horren ondorioz izandako sexu erasotzaileen zigor jaitsierekin izu egoera sortu eta gero. Feminismoak, baina, indar atzerakoien presioari jaramonik egin gabe, bere agenda propioa inposatzen jarraitu du. Euskal Herrian zaintzen afera lehen lerroan jarri zuen Mugimendu Feministak Martxoaren 8rako. Oraindik ere emakumeak dira –batez ere, migratzaileak– zaintzen ardura dutenak gurean, eta haien eskubideak akuilu hartuta Mugimendu Feministak aldarrikapen egutegi zabala izan du, azaroaren 30eko greba orokor arrakastatsura arte. Zuzenean, Gasteizko eta Iruñeko gobernuetara zaintzen inguruko elkarrizketa mahaia martxan jartzeko eskatu zaie, Mugimendu Feminista lehen mailako aktore politiko bihurtu dela frogatzen duena.

Bultzada eraldatzaile horren beste adibide bat da Espainian Rubiales auziarekin gertatutakoa. Botere oinarri sendoetan pitzadurak zabaltzen duen indarra da feminismoa, beste urte batez, eta ziur datorrenean ere arrakala horiek irekitzen jarraituko duela. Bejondeizuela!



ELENA LAKA
ABOKATUA

Ziztu bizian joan da 2023a ere

Edozein lanbidetan 2000tik aurrera jaiotako lankideren bat izan dezakezu; 65etik gorakoak biztanleriaren ia laurdena. Mugikorrek suntsitzaileak izan daitezke: 10 urteko umeek pornoa ikusten dute. Gazako haur mutilatuek barra-barra hartu dituzte pantailak. Gerra batekin beste bat ahaztu.

Zaharrenen zaintza ikustarazteko greba feminista, langile publikoak greban. Parekorik edo. Udaletarako eta Madrilerako botoa. Debagoieneko udal guztiak alderdi bakarraren esku. Giharra erakusteko balitz. Gipuzkoan emakume bat buru lehen aldiz, PPrentz botoa erabakigarri. Madrilen, koalizio handia.

Adinertainean, erreleboa. Agur, Urkullu; kaixo, beste gizon bat. Aliantza berriak Nafarroan. Negu epela, uda sargori, klima larrialdirako azken orduko akordiotxo.

Trans pertsonen eskubideak, bai bakarrik da bairen joan-etorri bihurria, hezkuntza itunaren lauko adostasunaren porrota. Hipoteken prezioa gora eta tentsionatutako guneak Etxebizitza Lege berriarekin.

Epaileak boteretuta euskararen aurka. Eta Espainiako Gobernuaren kontra. Eskuina oldartuta nonahi. *No hay plata*. Amnistia lege bat ikusiko genuenik ere. Adimen artifiziala txikiteoko elkarrizketetan sartu zaigu.

Hau ziztu bizian doa.

ibili
SINCE 1942
www.ibilimenaje.com

Zorionak
eta Urte Berri on!

autopullmans
Araba

Urte berri on!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

**ANE IRAZABAL**
KAZETARIA

Gotorlekuak eta harresiak finkatuz

Posible da 2023ari agur esatea ezkorregia izan gabe? Urtero, egutegiaren azken orriari buelta ematen diogunean, horixe eskatzen digu tradizioak: gertatu denaren onena nabarmendu eta urte berriari onena opa. Baina inguruan daukagunak ez digu baikorrak izateko espazio handirik uzten. 2023ak joera arduragarria sakondu du mundu mailan. Eskuin muturraren botere-hartzea gero eta finkatuago dago eta herrialde askotan ultraeskuinak bere gain hartu ditu aldarrikapen antisistemak.

Nork defendatzen ditu langileak? Nork borrokatzen du soldata minimoa igotzeko? Nor da herrialdearen interesen benetako defendatzailea? irakurri dut Alemaniako eskuin muturreko AfD alderdiaren kartel baten azpian. 2023ak atzerakada handia ikusi du errefuxiatuen eskubideen aldarrikapenean. Europak gero eta neurri gogorragoak inposatu ditu migratzaileen deportazioak arintzeko, eta argi utzi du zein den indarrean jarri nahi duen estrategia: klase ertaineko etorkin kualifikatu ez-musulmanak erakarri nahi ditu eskulan faltari aurre egiteko, baina, aldi berean, gainontzeko guztiak ez dira ongiatorriak.

Eskuin muturraren gorakadaren beldur, eskuin tradizionalak eta demokrazia liberalek agenda ultra kopiatu dute. 2024ak esango digu herritarrek zer nahiago duten, kopia edo originala.



Emakume bat, manifestazio batean, Palestinako bandera batekin.

**XABIER LETONA**
KAZETARIA

Israelen segurtasuna, gure garapena

Eredugarria da CAFeko langile batzordeak Jerusalemen trenik ez egiteko enpresari egindako eskaera. Denak ez du balio. Euskal Herrian, gure bailaran, gure herrian egindako produktuak Israelera joatea ez da doakoa, ezta hemen han egindakoak kontsumitzea ere. Izan gaitezke zerbaiten konplize, oharkabean ala jakitun. Baina dakigunean zerbait nondik datorren edo nora doan, eta zertarako den. Hor ez dago aitzakiarik.

Horregatik, ez dago aitzakiarik irakurtzen dugunean Eusko Jaurlaritzaren estrategia ekonomikoan Israel lehentasunezko herrialdea dela harreman ekonomikoetan. Jaurlaritzak bultzatzen ari da palestinarrekin *apartheid*-a praktikatzeko duen Israelekiko harreman ekonomiko; eta berdin hari sal-erosten dion edozein enpresa. *Apartheid*-a humanitatearen aurkako krimena da.

Balioek ezin dute balio enpresa edota kooperatiba barrurako bakarrik. Hori da Israelek egiten duena: demokrazia juduentzat, zapalkuntza palestinarrentzat. Hark, segurtasunaren izenean. Eta guk hari sal-erosten diogu, garapenaren izenean. 200 milioi euro -euskal enpresek 2022an Israelera saldutakoa- ez da txantxetako; ezta 2023rako aurreikusita dauden 300 milioiak ere. 2005ean ekin zioten palestinarrek Israeli boikota egiteko BDZ Boikota, Desinbertsioa eta Zigorrak mundu mailako kanpaina. Ba, horixe!

RPS: 88/23



ESTELLA

FARMAZIA-ORTOPEDIA SEKZ.

Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63



Urte berri on!



itesa

Urte berri on!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

Geopolitikak, inflazioak eta ingurumenak baldintzatutako urtea izan da igarotakoa

Mundu mailako gertakariak eragin zuzena dute tokiko ekonomian. Ukrainiako eta Palestinako gerrek inflazioaren areagotzea ekarri dute eta ingurumen gaiek badute eta izango dute bilakaera ekonomikoan zeresana



AGURTZANE LEKUONA
EKONOMIALARIA

Arnasgunerik ez, gerren ondorioz

Leroburu ugari utzi dizkigu 2023ak ekonomiari dagokionez. Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraren itzal luzearekin hasi genuen urtea, eta, amaitzerako, Israel Palestinan burutzen ari den genozidioak areagotu baino ez du egin. Gerren ondorioetako bat izan da, aurreko ere, prezioen igoerek arnagune gutxi ematea. Ekoizpen-kostuen eta enpresarien marjinen igoerekin lotutako inflazioari irtenbidea emateko errezetarik onena ez izan arren, 2001etik ikusi gabeko kotetara igo ditu interes-tasak Europako Banku Zentralak. Hala, bai prezioen eta bai maileguen interesen igoerarekin herritarron erosahalmena txikitu egin da eta gizarteko desberdintasunak igo egin dira.

Beraz, estatu mailan eratzten ari den gobernu berriak baditu zenbait erronka. Ingurumenarena da beste bat; COP28a energia nuklearra zuzitzen eta kapitalismo berdearen oximoronari palanka egiten dabilen bitartean, badugu zer pentsatua: kapitalismoaren gasolina den hazkunderaren eta jasangarritasunaren arteko bateraezintasuna. Momentu aproposa da A30eko grebaren aldarrikapenekin bat egiteko eta bizitza erdigunean jartzeko bide-orria elkarrekin marrazten hasteko.



JOSEBA MADARIAGA
LABORAL KUTXA

Inflazioa, protagonista nagusia

Gertaera geopolitikoak agenda globala markatzen ari dira duela urte batzuetatik. 2023an, Ukrainaren eta Errusiaren arteko gerraz gain -bere bidea jarraitzen baitu-, Ekialde Hurbilean beste gatazka bat piztu da berez konplexua eta garrantzi handikoa den eremu batean. Horrek ziurgabetasuna areagotzen du eta arreta eskatzen dio ekonomia eta haren bilakaera aurreikusteko aukera aztertzeke orduan. Arlo ekonomikoan, zalantzarik gabe, protagonista nagusia 2022-2023ko biurtekoan inflazioa izan da. 2022ko uztailetik izandako tasen igoeren ondoren, badirudi Europako Banku Zentralak tasak %4,5ean mantentzea erabaki duela; hori horrela, datozen hilabeteetan inflazioa konfort-gunera bueltatzea espero da. Halere, tasen igoerek euroguneko ekonomiaren sendotasunean eragin itzela izan dute, eta, hirugarren hiruhilekoz negatiboan, atzeraldiaren atarian dago.

Horien aurrean, lan-merkatua erakusten ari den indarra ari da izaten ezusteko positiboa, eta BPGren hazkunde-tasa EAEn eta Nafarroan %1,7 ingurukoa izatea espero da. Eta 2024ari begira, hazkunde moteltzea espero dugu. Tasen igoeren eragina nabaritutako da eta hazkunde-zifrak 2023koak baino arinagoak izango dira.



Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean

Ongi etorri 2024

Leizeaga 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84



Ordutegia: 08:30 - 20:30 | Ibagarai Ibilbidea 11 | Tel.: 943 76 28 92



Urte berri on!



Ekologistak COP28 gailurra salatzeo ekintza baten.


AITZIBER ELOLA
 ORKESTRAKO IKERTZAILEA

Susperraldia, oraindik ere, motel

CCOVID-19 pandemiaren eta Ukrainako inbasioaren ostean, munduko ekonomiaren susperraldia motela da oraindik, nahiz eta pandemiaren ondoren ekonomiak berriro ireki diren eta inflazioa murrizten ari den. Jarduera moteltze honen arrazoietakoz batzuk pandemiaren, Ukrainako gerraren eta zatiketa geoekonomikoaren epe luzeko ondorioak izan daitezke; beste batzuk inflazioa murrizteko hartutako moneta politika edota muturreko fenomeno meteorologikoak izan daitezke, besteak beste. 2024rako iragarpenek, gainera, oraindik ere hazkundeak moteltzen jarraituko duela aurreikusten dute, Txinako higiezinaren sektorearen krisia sakontzeko arriskuak eta beste hainbat ziurgabetasunek ere presente jarraitzen baitute.

EAEko BPGk %1,6ko igoera izan du 2023ko hirugarren hiru hilabetearen urtetik urterako tasan, eta 15.000 lanpostu baino gehiago sortu dira, baina mundu mailako egoerak EAEko eta Gipuzkoako esportazioen eboluzioan izan du eragina, azken hilabeteetan aurreko urteko garai berekoak baino baxuagoak izan baitira. Ziurgabetasun handiko momentuak bizitzen jarraitzen dugu, eta, horren aurrean, enpresek, gobernuek eta gainontzeko eragileek egokitzeko gaitasun handia behar dute.


ADRIAN ZELAIA
 EKAI TALDEKO PRESIDENTEA

Europa desindustrializatu zen urtea

Orain arte, ezin zitekeen aurreikusitako zer-nolako desindustrializazio-prozesutan murgildu garen. 2022an, hainbat neurri hartu genituen behin eta berriz Errusiaren aurka; horren ondorioak izan dira Europako ekonomiari kalte handia egitea, Ameriketako Estatu Batuetakoari mesede egitea eta Errusiari ia kalterik ez egitea. Errusiako energia merkerako sarbidea galtzean, Alemaniako industriaren heren bat merkatutik kanpo geratu da, energia-sektore intentsiboetan %30erainoko fakturazio-jaitsierarekin. 2022ko udazkenean, Txina ere zigortzea erabaki zuen Mendebaldeak, Europari kalte larria eraginez. Aitzakia bat bestearen atzetik bilatu dugu Txinarekiko harreman ekonomikoak apurtzeko eta, aldi berean, gure industriaren suntsipenean aurrera egiteko.

Mundu osoa ere zur eta lur uzten dugu, karbono isuriak ezabatzeko ezinezko lasterketan murgilduko garaile ematen baitu. COP28ko lehendakariak esan duen bezala, Harri Arora eramango gaituen lasterketa baizik ez dena. Hori guztia gainzorpetzearen, hondoratze demografikoaren, inbertsioaren ahuleziaren edo produktibitatearen geldialdiaren erronka handiak ahazten ditugun bitartean. Horri guztiari aurre egitea ezinezkoa izango da klase politiko berririk gabe.

TELAETXE

Fabrikako prezioak

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metroa
• BERGARA •
Tel.: 943 76 39 40 / 41

Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara zabalik

Larunbatetan
10:00etatik 13:00etara

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain

ALFONBRAK

Urte berri on!

Luis Rubialesen aferak itzal egin die emakumezkoen kirol lorpenei

Debagoiengan aurtan emakumezko kirolariak nabarmendu dira, bereziki. Nazioartean, baina, futbolak duen erakusleho handiengan, Espainiako Federazioko presidente Luis Rubialesen aferak gauza asko bistarazi ditu



ENERITZ URRUTIA
ANTXINTXIKA TRIATLOI TALDEKO KIDEA

Emakumeak eta kirolariak dira

Maialen Axpe, Malen Osa, Malen Ruiz de Azua, Ane Zabala, Ainara Urrutia, Oihana Kortazar, Arrasateko gimnastak... azkenaldian sarri entzun ditugun izenak dira, emakumeak eta kirolariak. Buelta erdi eman diogu gizarteari, geroago eta gehiago gara, nahiz eta lana dagoen aurretik. Gelditzen zaigunari buruz hitz egiteko denbora dugu, baina orain ditugunekin gelditzen naiz. Hala, urteko errepasso hau Debagoienetik hasi behar nuen, eta nazioartean amaitu, baina aipatu ditudan hauek maila guztietan nabarmendu dira.

Badugu ama den Ane Zabala, han eta hemen korrika ikusten dudana, goizeko ordu txikitian. Urteetan ezagutzeko aukera izan dut, eta ama paperetik, gainera, nahiz eta bion arteko lotura kirola izan den beti. Indartsua, borrokalaria, langilea...

Trikitilari izandako Maialen Axpek eta biok txapa, narru eta soinuaren botoiekin egin genuen topo txikitian; a ze oroitzapenak! Fina zen Maialen eta fina da orain. Zerbitetan hasi eta hori ondo egin arte ekiten dion horietakoa. Ametsengatik borrokan jarraitzen duen emakume kirolaria. Bada, Malen, Ainara, Oihana, Josune, Ainhoa, Ainhize, Itxaso, Xubane, Rakel, Miren... asko dira eta denek daukate zerbitu berezia. Aipatu ditudanei eta gainontzekoei, zorionak, emakume eta kirolari izateagatik!



ARATZ LOSADA
MATX KIROL PROIEKTUKO EDUKI ARDURADUNA

Aldaketa garaia da

Konturatu ere egin gabe joan zaigu urtea, eta banator nire egunerokoari bizia ematen dion kirolaren errepassoa egitera. Etxetik hasita, azken egunotako albiste batek eraman du nire arreta.

Aloña Mendi triatloi taldeak adierazi du 2024an ez dela Oñatiko Duatloirik egongo. Proba horren barrunbetan ibili garenontzat, gogorra izan da notizia. Euskal zirkuituko proba garrantzitsu eta zaharrenetako baten etenaz ari baikara. 2025ean indarberrituta itzuliko diren esperantzarekin, doakio hemendik besarkada bero bat Andoniri eta bere lantaldeari.

Euskal Herri mailara salto eginda, Frantziako Tourra gurean hasi zeneko urtea izan dela oroitu dugu ziklismo-zaleok –eta zale ez direnak ere bai–. Sekulako kanpaina egin zuten, sekulako dirutzak mugitu zituen... baina garrantzitsuena falta zaigu. Bertako klubei lasterketak antolatzeko erraztasunak ematea. Alde horretatik, lankidetzeta nahia da aldaketarako gakoa.

Amaitzeko, mundu mailako kirol errealitatea erabat aldatu duena ekialde ertaineko jekeen botere ekonomikoa izan da. Ez dakit konturatu zareten, baina, azkenaldian, dena eramaten ari dira hara. Futbola, 1 Formula, automobilismoa, tenisa...eta azkena, golfa. Jon Rahm izan da petrodolarren tentazioari uko egin ezinda gelditu den azken kirolaria.

IOSU

harategia • taberna





Gabon zoriotsuak guztioi!



Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08

Elena Elkorok 2024. urterako hoberena opa dizue elgetar guztioi!

Urte berri on!



ESTI LOITI
MONDRA-KO EMAKUMEZKOEN SAILEKO ARDURADUNA

Badugu lana oraindik

Gurean mendi lasterketetan eta atletismoan jarriko nuke arreta. Ikustekoa da belaunaldi ezberdinetako mendi lasterkariak ematen dabilzan maila. Oihana Kortazar eta Ane Zabala izan daitezke bi adibide, edo Ainara Urrutia edo oso gaztetatik nabarmentzen dabilen Malen Osa. Eta atletismora etorrira, Maialen Axperena eta Malen Ruiz de Azuarena ikaragarria da, euren bakarririk dakite zenbat lan dagoen atzean.

Euskal Herri mailan, iruditzen zait Irene Paredes urteko kirolari nabarmenena izan dela. Esango nuke klub mailan –Bartzelonako jokalaria da– eta baita selekzioarekin ere irabaz daitekeen guztia irabazi duela. Eta ez hori bakarririk, sekulako nortasuna daukala iruditzen zait, edonork bere taldean izan nahi lukeen jokalaria horietakoa.

Nazioartean ere futbolari helduko diot. Munduko Txapelketan Luis Rubialesekin gertatu zen afera ezin da salatu gabe utzi. Zeukan karguaz baliatuta, lorpen hartan protagonista izan behar zuela erabaki zuen, haren modura. Egindakoak salagarriak izan ziren, baina handik bueltatutakoan eman zuen prentsaurrekoak erakutsi zuen zer-nolako pertsona den. Beste maila batean, emakumezkoen futbola sustatzen dihardugunok tarteka ikusten dugu batzuei traba egiten diegula oraindik. Badugu lana.



JONATHAN PEREZ
ATLETISMO ENTRENATZAILEA

Herriko atletek duten meritua

Bailara ikuspuntutik, deigarria da ikustea zelan urteak joan eta urteak etorri eta Malen Ruiz de Azuak eta Maialen Axpek hor jarraitzen duten, estatu mailan erreferente izaten. Aurten, bai pista estaliko txapelketan eta baita aire librean ere bi arrasatear hauek izan dira podiumeko lehenengo postuetan. Eta ez pentsa lehiakiderik ez dutenik. Ea 2024an orain arteko mailari eusten dioten.

Bestalde, txirrindularitza batere jarraitu ez duen pertsona izanda, Frantziako Tourra hemendik pasa zenean txundituta geratu nintzen. Zelako abiadura pasa ziren! Kirolaria naizen aldetik, ziklistek nire miresmen osoa dute. Tropeleko azken sailkatuak ere ziztu bizian igo zuen Jaizkibelgo mendatea, eta Stravako errekorra ondu. Gero jakin dut euretako batzuek ze gutxi irabazten duten, eta, jakinda kirol horrek zenbat jarraitzaile dituen, ez zait bidezkoa iruditzen.

Atletismora itzuliko naiz errepasoa amaitzeko. Gizakiak geroago eta gertuago du maratoian bi orduko langatik jaitea. Azken urteotan Kipchoge izan da gertuen egon dena, baina aurten Chicagoko maratoian Kelvin Kiptum-ek egin duenak zur eta lur utzi ditu denak (2.00.35). 24 urterekin munduko errekorra ondu du. Orain arte, hiru maratoi baino ez ditu egin Kiptumek, eta ze marka! Hura izango da bi ordutik jaisten lehena?



Helene Alberdi izan da Oñatiko Duatloiko azken irabazlea.



MARTIN frutategia

Frutan eta
txarkuterian espezialista

Urte berri on!

San Juan kalea 12 ESKORATZA Tel.: 652 77 53 58



MITARTE 1
ARETXABAETA
943 77 13 79
636 02 39 96

A R E D E R ARRANDEGIA

Zerionak eta urte berri on!

Urteurren borobilak eta ekimen berrien eta berritzaileen abiatzeak

Kulturgintzan tradizio handiko eskualdea dela erakutsi dute ospatutako urteurrenek, baina, aldi berean, modernoa ere badela adierazten dute arte-diziplinetan aurten protagonista izan diren sortzaileek eta askotariko sormen lanek



IKER BARANDIARAN
KAZETARIA ETA MUSIKAZALEA

Musika urbanoa vs street punka

Emankorra izan da 2023a. Bergarako Orfeoiak 100 urte bete ditu eta Arrasate Musikalek 50, ospakizun askotarikoekin. Bestalde, Arrasaten JAME izeneko musika emanaldi areto dotorea ireki da. Ez akademikoa eta ez hain agerikoa ez dena erakutsi dute Arrasateko Perlata taldekoek eta *Punkaren beste alde* dokumentala ekoiztu dute Jesusi Etxeberriaren omenez. Bestalde, Oñatiko Iker Martinez eta Zaldi Herrenak-ek *Arnasaldiak* dokumentala plazaratu du.

Gazteriari begira, badirudi bi musika korrante nagusi daudela: Mutiko eta Densok zein Etxepe-k ordezkatzan duten *urbanoa* deritzona; eta, bestetik, oi! edo street punka. Azken honen adibide dira ospea hartzen dabilen Kontralde gazteak zein Iskanbila, Neallta Fola eta Aggressive Combat lan berriekin bueltatu izana. Baina bada besterik ere: *Kuartela* bilduma aretxabaletarra zein Bergarako lokaletakoek erditutako *Loratzen*. Eta baita ere Danbaka lehiaketaren bosgarren edizioko irabazle The Clayton talde rocker aramaioarra zein Bergarako hardcore talde beterano Fly Shit; biak, diskoa kaleratu berri.

Bukatzeko, Jonan Ordorikak utzi gaituela gogoratzea; eta hausnarketarako liburu oso apropos baten proposamena: Jon Urzelairen *Su festak*.



ITZIAR UGARTE
'BERRIA'-KO KAZETARIA ETA IDAZLEA

Idazleak, bai; irakurleak?

Durangoko Azokaren biharamunean idazten ditut lerrook; iluntzean, erakusmahaiak biltzeko lanetan genbiltzala entzun zen komentario batek oihartzun egiten didala oraindik: "Bost eguneko tripakada honen ondoren, urte guztian zer?".

Kezkak bai, baina ospatzekoak ere bai. Oparoa izan da 2023ak apaletara ekarri diguna. Baga, poesiarentzat oso urte ona izan da –Libe Goitiaren *Fast Fatum*, Jon Gerediagaren *Zeru-lurren liburua* eta Harkaitz Canoren *Ulu egiteko bolondres bila*, besteren artean–; biga, itzulpena gihartsu agertu da –*Persepolis*, *Palestina*, *Moby Dick*–; eta higa, ipuin-liburuen soka izen berriekin hazi da –Miriam Lukiren *Argialdiak*-ekin, bat aipatzearen–.

Nobel saria Jon Fossek irabazi du aurten, eta poza eragin du bidea kale nagusitik aparte samar egiten diharduen egile bat izateak –inbidia ere piztu du jakiteak Norvegiako Gobernuaren dirulaguntza jarraikor bati esker garatu ahal izan duela ofizioa modu duinean–. Handik gurera bueltan, Debagoienara, zehatzago, gomendio bat, ixteko: Yolanda Larreategik eta Helena Azkarragaurizarrek lau eskutara ondu duten *Putu gorda* album ilustratua.

ILEA
Ileapaindegia

Zorionak
ETA URTE BERRI ON!

Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA ilea peluqueria/ileapaindegia

Zorionak eta urte berri on!

ANDRA MARI
ASESORIA / AHOLKULARITZA

Fiskala • Kontablea • Juridikoa eta laborala

Araba ibilbidea 20A, behea • Aretxabaleta • 943 79 29 26 • joseluis@asesoriaandramari.com



ANE ZUAZUBISKAR
BERTSOLARIA ETA KAZETARIA

Eta bertsoan zer

Diskorik, libururik eta obrarik ez bertsolariok, eta "zailagoa" da neurtzen –eskerrak ez dugun guk diskorik egiten–. Nafarroako eta Bizkaiko bertsolari txapelketen urtea izan da. Eta askotan entzun dugu "zenbatemakumefinaletan". Poz txikiak poz txiki, Nafarroakoan zortzitik bi ziren finalean, baina txapelketa osoan hogeita lautik sei, eta Bizkaikoan zortzitik bost finalean eta txapelketa osoan hogeita hamaseitik hamabost. Ifrentzuan –ala albo batean–, Maider Arregik irabazi zuela III. Señora Sariketa, finala Oñatin eginda. Debagoieneko bertsolariarik ez dabil txapelketetan aurten: Arabakoa eta Gipuzkoakoa datorren urtean jokatuko dira. Zarata gutxiagoko kontuetan ari gara. Beste aldean egonda, badakigu zer den hori: "Bertso saio honen hirugarren aldia? Elkarrizketa bat egingo diegu horregatik? Albiste bat?". Baina hori da bertsoa.

Bertsoa da Antzuolan bertso-eskola dutela aspaldiko partez, bertsoa da Arrasaten haurren taldea osatu dutela. Bertsoa den moduan hogeita bosgarrenez egin dutela auzo bateko saioa edo hirugarrenez Kopla Txapelketa Aramaion. Edo bertsoa den moduan erabat bertso-eskoletatik ateratako belaunaldia ari dela (garela) plazan, bertso-eskolak bailara honetan sortu zirenetik mende erdia betetzear denean.



Bergarako Orfeoiaren mendeurreneko ospakizunetako kontzertua.



IMANOL GALLEGO
KAZETARIA ETA ZINEMAN ADITUA

Hainbat pantailatan presente

Zinemaren magia ordezkazina da; gakoa istorio bakoitzaren atzean dauden ehunka pertsonaren talentuan dago, bada, Deba ibaiaren bi aldeek ekarpen polita egiten jarraitzen dute.

Badira urte batzuk herrikideen ikus-entzunezko lanek gero eta sona handiagoa lortzen dutela. Aitor Arregik abenduan bukatu zuen *Marco* filmaren errodateja, eta, dena ondo bidean, 2024an ikusiko dugu pelikula. *Balenciaga* ere urte berean estreinatuko da. Gure zinemaren *Da Vinci* den Kepa Errasti ere oholtza eta zeluloide artean gogoz ari da lanean. Jon Olivares gero eta ohikoago bilakatzen ari den izena da. Baina, izen propioez harago, artikulatu honetan kabitzen ez diren ehunka teknikari, zuzendari, gidoiari... ere jo eta fuego ari dira zinemarentzako istorioak sortzeko lan horretan.

Inozok pentsatuko dute gure bailararen bultzada belaunaldi baten kontua dela, baina hori ez da horrela. Ez naiz askorik luzatuko, baina Maia Zaitegiren, Xup taldearen edo Arrasateko Peryferyka ekoiztetxe gaztearen lanek erreleboa iritsi dela argi erakusten dute. Euren lanei freskura darie, eta zinema pantaila handi bat baino gehiago dela agertu dute. Kontsumitzean dago gakoa.

Okm: batzen gaituen distantzia

Egin zaitez goienakide!

goiena
kide

www.goiena.eus/kideak





ITSASO RUIZ DE LARRINAGA
HERRITARRA
ARRASATE



Euskal Herriko milaka pertsonak zaintza sistema publiko eta komunitarioa aldarrikatzeko kaleak hartu ditugu, greba historiko batean.



Eraiketa matxistak, Palestinako lurren okupazioa eta genozidioa... Patriarkatuak eta kapitalismoak haserretzen naute, haien krudeltasunean.



ZIGOR ORUNA
HERRITARRA
ARRASATE



Gazteen lan egoera hobetzen ari da. Gaur egun, zerbait ikasten dutenek lana erraz aurkitzen dute. Gazteak ikastera animatuko nituzke.



Palestinan eta Ukrainan gertatzen ari dena eta klima aldaketa. Bestetik, soldaten eta prezioen igoeren desoreka. Erosahalmena galduz goaz.



ASRIA GACEM
HERRITARRA
ARRASATE



Pozten nau Arrasaten sortu duten sahararren elkarteak. Gainera, euskal gizartean oso ondo integratu da elkarteak, eta pozgarria da hori.



Gazan gertatzen ari denak kezkatzen nau; giza eskubideen urraketa sistematikoak eta Israelen nazioartearen babesa izateak.



MIGEL ELORTZA
BASOTXO ELKARTEKO PRESIDENTEA
ARETXABALETZA



Aretxabaletako pentsiodun eta erretiratuok punta-puntako topaleku dotorea izango dugu, eraikinaren lanak abian direlako.



Eraikin horren lanen bukaera data abenduaren 31 zen, baina atzeratu egingo da hainbat hilabetez; pena, baina apirillean martxan bada, gaitz erdi!



ONINTZE LONBIDE
LORAMENDI ELKARTEKO LANGILEA
ARETXABALETZA



Loramendik 30 urte bete ditu; zenbat lan urteetan egindakoa! Bertatik pasatutako kide guztiak eskertu, eta jarrai dezagun lanean!



Herrira begira lan asko egiten da elkarteak, eta pena da jasotako dei eta mezu gehienak kezatzeko eta desadostasunak adierazteko izatea.



JOXE MARI GALANTE
HERRITARRA
ESKORRIATZA



Azaroaren 30eko Euskal Herriko greba feminista orokorrak zabaldu duen bidea zaintza-eredu publiko berri bat sortzeko.



Argi dago Israel Palestinan egiten ari dena genozidioa dela. Gerrekin ez goaz inora, eta krimen horrek ez du justifikaziorik.



ARANTZA MIGUEL
HERRITARRA
ESKORRIATZA



Greba feministako hilabeteetako topaketak, hausnarketak, haserreak, akordioak, elkartasuna... Horrek hunkitu egiten du.



Indarkeriaren kulturaren jarraitzen dugula ikusteak. Debagoienean izan diren 175 tratatu txarren salaketak -3,5 salaketa astean-.



JUAN LUIS ZABALA
HERRITARRA
LEINTZ GATZAGA



Aurten Euskal Herrian filmatu diren film luzeen zuzendaritzan izan den emakumeen presentzia nabarmenduko nuke.



Palestinako herriarekin Gazan gertatzen ari den genozidioa onartezina da eta ikusi ditugun irudiak oso bortitzak izan dira.



JULEN AXPE
HERRITARRA
ARAMAIO



Ilunean argi printzak ikusten hasi garela bizitzako alderdi askotan. Orain, argi horri jarraituz gauzak aldatzeko garaia da.



Gaiztoek gaiztakeriak geroz eta krudelkeria handiagoz egiten jarraitu dutela eta guk, bitartean, gure zilborrari begira jarraitzen dugula.



MAIDER BIDABURU
ITUR-ZURI ELKARTEKO KIDEA
ARAMAIO



2022 txarra pasa nuen; gaixorik egon nintzen. Hortaz, aurtengo urteak eman duen onena izan da normaltasuna berreskuratzea.



Itur-Zuriko kide naiz, eta, ikuspuntu horretatik, gizartean emakumeek pairatzen duten guztia: hilketak, matxismoa...

• **Ibargarai 24**

Tel.: 943 76 70 29

• **Super Amaran ere bai:**

San Lorentzo pol. 9

Amillaga 18

Tel.: 943 76 99 34

BERGARA

Ongi etorri 2024





ARIANE ALBERDI IÑARRA
MARTXANTERAK TALDE FEMINISTA
BERGARA



Eskuinak gora egin arren, feminismoak kaleak hartzen segitzen du eta fruituak ematen ari da, gizartean gero eta pisu eta leku gehiago hartuta.



Palestinako sarraskiaren aurrean askok beste alde batera begiratzen dute, indarkeria matxistarekin, arrazistarekin edo kapazitistarekin bezala.



BORJA ELKOROBEREZIBAR
SASKIBALOI SAILA
BERGARA



Izen-ematea gora doa, eta emakumeen eta gizonen arteko jokalaria kopuruaren arrakala txikitu egin da. Saskibaloia indartzen ari da nesketan ere.



Saskibaloi eskola hobetzen ari bada ere, baldintzak hobetzea dagokigu. Lanean jarraituko dugu, etengabe, saskibaloiak oinarri sendoak izan arte.



PELLO TXINTXURRETA
ENPREZARIA
BERGARA



Pandemiak eraginda pasatu ditugun urte zailen ondoren, 2023a normaltasunera itzultzeko urtea izan da, arlo sozialean zein ekonomikoan.



Palestinako herria bizitzen ari den txikiztoa onartezina da; ez dago ulertzerik nola gertatu daitekeen halakorik gaur egun nazio garatuen babesarekin.



IONE LARRAÑAGA
ILUSTRATZAILA ETA NEKAZARIA
ANTZUOLA



Zoragarria izan da Amillubi proiektuaren sorrera. Gipuzkoako agroekologia eta elikadura burujabetzarako pauso handia da.



Klimaren egoera horren txarra izanda, ez zaizkie mugak jartzen, batez ere, dirudunei, enpresei eta gehien kutsatzen dutenei.



JON MATA
HERRITARRA
ANTZUOLA



Adimen artifizialaren garapena. Medikuntzan ekar ditzakeen onurak sekulakoak izan daitezke. Inor ez da hura beste datu barneratzeko gai.



Etxebizitza eskubidean urraketak. Gero eta gehiago dira etxegabetzeak; egoera zaurgarrian dauden familiak kalean uzten dituzte.



DORLETA FERNANDEZ
D'OR ESTETIKA ZENTROA
ONATI



Bat aipatzearen, garraioetako -autobusekoak zehatzago- bidaietan ditugun deskontuak herrietara zein hiriburuetara joateko.



Teknologiarekiko menpekotasunak. Gazteen erabilpenak, pornografian kasu; nagusiok, mugikorrean ikusitakoarekin asetzarren.



IÑAKI IGARTUA
KIROLARIA
ONATI



Araudia aldatuta, Kongresuan hizkuntza gutxituetan mintzatu daitekeela. Alegia, euskara ere ofiziala dela Madrilgo Kongresuan.



Espanian dauden etxebizitza, etxebizitza-blokeen eta eraikin publikoen %87 baino ez direla irigarria. Hamarretik bat da zenbateko hori.



NEREA GIL
GIDOILARIA
ONATI



Zinemari lotuta, adibidez, *Oppenheimer* eta *Barbie* filmen estreinaldiekin zinema aretoak lepo bete zirela aurtengo udan.



Giza eskubideak dudan jartzen dituztenak asko direla oraindik. Tamalez, horren adibide bat baino gehiago ikusi ditugu aurtan.



JONE ARBULU SARRAOA
AMANTALAK TALDE FEMINISTAKO KIDEA
ELGETA



Elgetako gazteak ekimenak antolatzen ikustea; Gazte Asanbladaren sorrera eta Amantalak talde feministaren berpiztea, besteak beste.



COP28-an fundamentuzko neurririk eta akordiorik ez adostu izana. Argi utzi dute diruak inguruneak baino gehiago inporta duela.



FERNANDO LARRAÑAGA
UDAL ARTXIBOKO BOLUNTARIOA
ELGETA



Gustura ibili gara udal artxiboko lanetan. Herriko baserrien gainean ekainean egindako erakusketak arrakasta izan zuen.



Gabonetan argazki zaharren beste erakusketa bat egin nahi genuen, baina ez da posible izan, ez baitugu behar beste material bildu.

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAITZA
ZORROTZENA

2.500 bezerok gugan
dute konfiantza

Urte
berri on!

943 903 450
bertako.eus



SALTOKI HOME

Sukaldea | Zeramika
Altzariak | Komuna
Argiztapena

